

uk

46. zenbakia / 2003 uztailak 22





Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Mojak Telletxen. Mikel Martinez.
6. PLAZA. Erlijioa eta espiritualtasuna, Jokin de Pedro. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, A. M.
7. LEHEN ETA ORAIN. Usategi parkea.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 24.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Surf ohol baten jaiotza. Asier Mentxaka.
30. ERREPORTAJEA. Drogak arrisku barik. Unai Brea.
32. ERREPORTAJEA. Jaietan ere beharrea. Jon Urresti.

KULTURA ETA AISIA

34. FOTOGRAFIA. Begiradak. Jorje Perez.
38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Fernando Velázquez.
39. MUSIKA. R13 taldea. Kontzertuak eta diskoak.
40. IRAKURGAIK. Esti Ezkeraren zutabea eta Laura Mintegi.
41. KOMUNIAZIOA. DVD euskarri digitalaren gorakada.
42. NATURA. Gure espezie bat, aingira. Galipota garbitu.
43. MUGIDU. Londresera txangoa. Kirola, mendi ibilketa.
44. OSASUNA. Kanabisa. Sexu harreman ziurak.
45. JANTZI. Toallak.
46. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.

EUSKARAZ

48. URIBERTSOAN BARRENA. Aitzol de Kastrori elkarrizketa eta gainera, bere hiru bertso. Algortako Bertsolari Eskola.
50. AKABUKO PUNTE. Umazaroa gogoratz. Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

AMAITZEKO

52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan? Erandioiko Pinubari jatekxan.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Ciclos Elgezabal txirrindulari taldea, 1949.
58. AITORMENAK. Harkaitz Cano.



34 Fotografia

Jorje Perez-en argazkiak
Diseinatzaile grafiko algortarrak Ameriketan zehar hartu duen irudi sorta ederra utzi digu



26 Zelan egiten da surf ohol bat?



58 Harkaitz Cano



48 Aitzol de Kastro



30 Drogak arrisku barik



40 Laura Mintegi



AZALA: Yunza afroperutar dantzaria. El Carmen, Chincha (Peru). Jorje Perez



● zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

● **Boluntzarreta**
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIGIDEA: Arneti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunate Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bitor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Iratxe Agirre, Edurne Ugarte, Xabier Buenetxea, Patxi Díaz, Gonzalo Iribarregaray, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez, Mitxelko Uranga
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko hemi aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaideen da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarteen dirulaguntza jasotzen du

Itacagane Etxea / Karitateri 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



TOPAGUNEa



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Bagoaz oporretan

Esku artean duzun hau da, irakurle, oporren aurreko azken UK. Guk ere atesedena behar dugu eta! Zuk hau irakurri orduko, indarrak berritzen egongo gara, irailetik aurrera UK egitearen abenturari beti bezain gogotsu ekin ahal izateko. Zorionekoak gu.

Urte berezia da hau guretzat. UK hamaboskari bihurtu dugu, lan taldearen erdia baino gehiago berria izanda gainera, eta dagoeneko, otsailetik hona aldizkariaren hamaika zenbaki argitaratu ditugun honetan, balantzea egiteko momentua ailegatu dela uste dugu. Bagenekien erronka gogorra geneukala, eta hala izan da. Lana erruz eduki dugu, eta bitartekoak ez hainbeste. Askotan, ozta-ozta ailegatu gara egin beharrekoa egitera, eta hori igarri egin da, beharbada, aldizkariaren kalitatean. Hala bada, hutsak parkatu, eta ondo egindakoak kontuan hartu.

Gauzak horrela, hausnarketa egingo dugu datorren irailetik aurrerako lanari begira. Baliteke aldaketaren bat egotea. Auskalo. Edozelan, zuen iritziak, ideiak, proposamenak... ezagutzea gustatuko litzaiguke. Badakizue non gauden eta gugaz zelan harremanean jarri.

Beste mota bateko laguntza ere behar dugu zuengandik, orain arteko lan moldeei eutsiko badiegu: zuen diru-ekarpenak baratzeak euria bezala behar ditugu, UK are aldizkari hobea egiteko proiektu zoragarri honetan aurrera jarraitu ahal izateko. Aldez aurretik, eskerrik asko. 4

UKko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bialtzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Goizero >>>>> berria



TELETVE VALEA, ALGORTA

Kontuz krokodiloagaz! / Ezin uka lerro hauen gaineko irudiak tarte zabala eskaintzen diola irudimenari. Zeri begira daude, zehazki, mojatxo xarmangarriok? Krokodiloaren aho izugarriari beharbada? Edo lurrera jausi berri zaien bost hogereleko txanponari? Dena ezkutatu dena aditzera ematen duen irribarre lizuneko modelo puskarari akaso? Batek daki. Komentutik iren eta hamaika ikusi behar. XXI. mendeko publizitate estrategia erasorzaileak gehiegixto ete dira islasun eta errezu lasaira ohitutako arima gizarajontzat? Egia esan, hori mojei eurei galderzekotan egon ginen, baina ihes egin zuten aineketan. Pena da. m / Argazkia: Mikel Martínez

Leihatila

> Josu Eснаоla

Txakurrak
ortozik

Zenbatetan eta zenbatetan entzun ote dugu ez nahasteko kirola eta politika. Zenbatetan eta zenbatetan euskara ez dela politika egiteko erabilii behar. Baina osasunarekin, hezkuntzarekin, lanarekin, etxebizitzarekin... politika egiten bada, zergatik kirolarekin edo euskararekin ez? Nork ez du gogoan 1976ko abenduaren 5ean Atotxako futbol zelaian bizi izandakoa, edota 1980ko maiatzaren 14an munduko gailurrik garaienetik botatako “Gora Euskadi Askatuta” oihua? Nork ez ditu gogoko euskal selekzioak? Nork jartzen ditu piper-potoak San Mamesen hamabostean behin? Nork presionatu du Jean Mari Leblanc Baionan amaituko den etapan euskarak lekurik izan ez dezan? Hala ere, horrek guztiak baino beste zerbaitek nauka kezkatuturik azken aldian: Errealak jokalarikorear bat fitxatu ei du, Lee Chun Su, 3.504.000 euro ordainduta, eta dena amen batean. Bitartean, zelako lanak euskarazko egunkari Berria abian jartzeko dirua lortzen! 2.670.330 euro baino ez, eta gehien bat izenik ere ez daukan jende askoren nekeaz lortuak. Egia esan, 1968ko Mexikoko Joko Olinpikoetan, burua makur, larru beltzeko ukabilak jaso zituzten bi lagun en izenak ere ez ditut ezagutzen, baina txuri beltzeko irudia ondo gogoan daukat. Garesti ordainduko zuten. Han ere txakurrak ortozi k. 4

Iritzia

Pil-pilean daukagu erlijioa derrigorrezko irakasgai bihurtzeko Espainiako Gobernuak hartutako erabakiaren polemika. Horren gainean, Aixerrota ikastetxe ko Jokin de Pedro irakasleak ondoko lerroak igorri dizkigu.

Erljioa eta espiritualtasuna

«Euskararekin
katakunben
sasoia bizi izan
genuen
frankismoan;
erlijioarekin ere
bai. Orain bata
eta bestea,
mamu biak
errautsetatik
berbizten ari
zaizkigu»

LOCE edo “Kalitatearen Legea”-ren azken atzaparkada: Erljioa jakintzagaia derrigorrezkoa izango da Lehen Hezkuntzan hasi eta Batxillerrera arte; derrigorrezko beste jakintzagaien pisu bera izango du, eta bi bert-sio izango ditu: “erlijio-erlijioa” eta Erljioen Historia, bietatik bat auke-ratzeko. Hortaz, izango ez den aukera, orain arteko Erljioa/ “gai alter-natiboa” binomioa da.

Badira gure gizartean, gure historia hurbilean, auzi batzuk guta-riko asko sekula epel utziko ez gaituztenak: neuri dagokidanez behint-zat, bizi izan ditugun inposizioekin zerikusia dutenak dira horiek, hala nola iritzi askatasuna, nazioaren hautaketa, hizkuntz eskubideak... eta erlijioaren eta ateismoaren arteko hautu askea. Nire hautua, zentzua dudanetik, aipatu dudan bigarrena izan da: erlijiorik eza.

Hasier Etxeberriak “Bost idazle” liburu ederrean Atxagari egin zion elkarrizketan, honek zuhurki bereizi zituen nazionalista eta abert-zale (patriot) kontzeptuak, eta bere burua bigarrenaren alde azaldu; ale-gia, asko ez garea “nazionalista”, honek historian zehar gehiegikeria askotara eram an baitu (ikus PP eta orokorrean Espainiako oraingo bolada), baina bai abertzale, alegia, GUK hautatu dugun aberriaren aurka, GUK GEURE sentitzen dugun herriari zuzenean erasotzen zaio-nean, horixe baita pizten zaigun sentimendua. Zein gogoeta burutsua eta unibert-sala!


Atxagaren hitzak etorri zaizkit burura erlijioaren auzi honetaz gogoeta egiterakoan: ni ez naiz erlijiosoa eta errespetatzen ditut erlijio-ren bat dutenak. Baina nire seme-alabei INPOSATU behar dietenean erlijio bat (katolikoa), edo gutxienez beste guztiak aukeran eman, horrek dakarren iritzi-bortxaketarekin, nire seme-alaben eta erlijiorik gabe eskolara doazen guztien ERLJIORIK EZA aldarrikatu nahi dut, bai eta adierazi ere, inposaturik, erlijioak higuina ematen didala, uste baitut —historia lekuko— erlijioak, lehen eta orain, gatazka, sarraski eta gerra krudelen sorburu izan direla eta direla oraindik ere.

Eta ez naiz horregatik materialista, espiritualtasuna ezinbeste-kotzat daukat-eta bizitza ulertzeko eta sentitzeko. Eta baloreak adostera-koan, askatasuna, bakea, solidaritatea eta beste asko aldarrikatzeko erli-jioetatik urrun kokatu behar delakoan nago, inkisizio zahar eta berrieta-tik ondo aldentuta.

Barkatu auzi hau hotzean aztertze ko gai izan ez banaiz, baina ASKATASUNA —hit z horren benetako definizioa adosteko kongresu batzuk egin beharko lirateke— da nire balorerik kuttunena, eta biziki-detasuna izan beharko litzateke horren interpretazio adostu eta batera-tutik loratuko litzatekeen emaitza.

Euskararekin katakunben sasoia bizi izan genuen frankismoan; erlijioarekin ere bai. Orain bata eta bestea, mamu biak errautsetatik ber-bizten ari zaizkigu, baina euskaldunak, Oteizak zioen moduan, aspaldi konpondua dauka haraindiaren auzia eta aspaldiago daki zein den bere hizkuntza ere: izena ematen diona. Eutsiko diogu. 4

Jokin de Pedro (Aixerrota insitutuko irakaslea)



Iraganez doa denbora* beti / USATEGI

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > Irudi hau ez dugu trukatu





Getxoko antimilitaristak Sener enpresaren jarduna salatzeko egin zuten protesta

begizorrotz > amagintzaren kontra

Goiko irudiak Getxo Antimilitarista taldeak Sener enpresaren aurka egindako ekintza baketsu batenak dira. Ekintzaileek diotenez, Senerrek, “Euroflighter” hegazkinaren motorra diseinatu zuen; aurten, beste hegazkin militar baten zati bat diseinatzen dihardu. Munduan bilioi bat eta 200.000 milioi euro xahutzen dira urtero gastu militarretarako, Getxo Antimilitaristak salatu duenez. EAEn bertan, 1.382 milioi euro gastatzen dira (UKren urte osoko aurrekontua baino apur bat gehiago, beraz); izan ere, Estatuan armagintza industriarik indartsuena daukan autonomi erkidegoa ei da. Horrexegatik eta gauza gehiagorengatik antolatu zuten Getxo Antimilitaristakoek argazkietan ikus dezakezuen ekintza. ^m



bazen > zubiaga, berangoko boxeolaria

Gabriel Zubiaga Berangon jaio zen 1911 urtean. Agarre baserria zuen bizileku, eta ganaduak eta nekazaritza ogibide. Baina gainera, zaletasun berezi bat zuen berangoztar honek: boxeoa. 1928an igo zen ring batera lehenengo aldiz, amateur moduan. Algortako Francoren aurka borrokatu zuen, baita KOz irabazi ere. Ondoren lortu zituen garaipenek maila horretako Bizkaiko eta Espainiako tituluak eskuratzen eraman zuten. Beste boxeolarien aldean, Gabrielelek ez zuen behar moduko entrenamendurik egiten: baserrian ematen zuen egun osoa, eta borrokaldi baterako deitzen zutenean soilik biziagotzen zuen presakuntza. Hala ere, profesionala izatera heldu zen, eta 1941 urtean, 30 urte zituela, pisu ertaineko Espainiako txapelketa eskuratu zuen Euskalduna frontoian, Pinedo KOz garaituz. Haren jo indartsua zela eta, “mandoaren ostikoa” ezizenaz ezagutzen zuten. ^m

datua > aberats jarraitzen dugu

Orain dela hilabete batzuk Uribe Kostako biztanleok aberats ala pobre garen aztertu genuen erreportaje batean. Orduko informazio asko La Caixa banketxeak egindako urteroko txostenetik atera genuen; orain dela gutxi, aurtengo txostena eman du aditzera La Caixak, eta datuek diotenez, Espainiar estatuko aberatsenen artean gaude Hego Euskal Herrikoak. Herrialdeen artean, Araba, Gipuzkoa, eta Nafarroa mailarik altuenean daude (9). Bizkaia apur bat beherago dago (8), baina bertako hainbat hiri bai badaude aberatsenen artean. Bilbok, esaterako, aberastasun mailarik gorena (10) dauka, Estatu osoko beste 11 udalerrigaz batera (50.000 biztanle baino gehiagoko hiriez dihardugu). Horietako bat, gainera, Uribe Kostan dago: Getxo. 10eko indizea edukitzeak biztanleko batezbesteko urteko errenta 13.500 euro baino gehiagokoa dela esan gura du. Zuetako batzuek, beraz, hori baino gehiago irabazten duzue urtean. Zorionak! ^m

gauza > abanikoa



Haizea emateaz gain, abanikoek berezko hizkuntza daukate


Lumazkoak, banbuzkoak, bolizkoak... eta beste mota askotakoak izan daitezke antzinako egiptoarrak erabiltzen hasi ziren abanikoak. Japonian asmatu zen, VII. mendean, denok noizbait esku artean eduki dugun haizea sortzeko tresna tolesgarri eta zirkuluerdi-itxurakoa; geroago Europara salto egin zuen, eta bere erabilera Espainian errotu zen gehienbat. Freskatzeko balio duen abanikoak badu hizkuntza bat ere, ulertzeko zaila eta belaunaldi belaunaldi igortzen dena: garai batean, antza, emakumeak euren maitaleekin harremanetan jartzen ziren abanikoaren mugimenduez osaturiko ezkutuko kode baten bidez. ^m

kale izendegia > Josu Murueta plaza



Erandion, inguruko lantegiek eragindako aire-kutsadurak arazo larriak sortarazi zituen hainbat urtez: egun batzuetan, laino artean ibiltzen zen jendea, ia arnasa ere hartu ezinik. 1969an herritarrek “*aski da*” esan zuten, eta mobilizazioak egiten hasi ziren. Urriaren 28an polizia frankistak lau erandioztar zauritu zituen balaz (haietako bat, Anton Fernández Elorriaga, egun batzuetara hil zen); biharamunean protestak izan ziren, eta eguerdi aldean, Astrabuduan bizi zen 31 urteko Josu Murueta Moratilla hil zuen polizia batek Tartanga kalean, trenbidearen inguruan. Gertakari lazgarri horiek sekula ere ez ahazteko, Erandion badaude Josu Murueta izeneko plaza eta kultur etxea, baita Anton Fernández kalea ere, Euskal Mugimendu Ekologistaren lehen bi hildakoen omenez. ^m

Astrabuduan dago Josu Murueta plaza



Kanpotar begiz

Zer opezten zaio Getxora datorren turista bateri? Geure buruei itaun hori egin eta **erantzunaren bila** abiatu gara, bururatu zaigun modurik onenean: gu ere bisitarien eran hiriko **Turismo Bulegora** joanaz, hain zuzen.

Uztailaren 22an hamaika urte izango dira Getxoko Turismo Bulegoa ireki zela. Horra joan ginen goiz batez, edozein turista bezala, Getxok zer eskain diezagukeen galdetzera. Eta hau da esan zigutena.

Itsasoak (eta itsasadarrak), zenbait txoko ederrek eta ikustea merezi duen hainbat eraikinek turistentzat erakargarri egiten dute Getxo. Bilbo hurbil egoteak ere badauka zer ikusirik, Guggenheim museo-a zabaldu zenetik inguru honetara datozen bisitariak askoz gehiago dira-eta.

Zalantza barik, Bizkaiko Zubia da Getxoko “erreklamo” nagusia. Guri ere horixe adierazi digu bulegoko langile batek txango bat egiteko abiapunturik egokitzen. Ondoren, kostaldetik joanda Portu Zaharreraino joatea gomendatu digute, Kirol Portuan geldialdia eginda.

Laguntza moduan, mapa bat eman digu harrera egin digun langileak. Bertan, hiriko gune interesgarrienak ageri dira nabarmenduta. Dagoeneko aipatutakoez

Ez dira urrunekoak

- Iaz 33.238 lagun hartu zituen Getxoko Turismo Bulegoak.
- Horietatik %47 Getxokoak ziren, %25 Euskal Herriko gainerako lekuetakoak, %15 Espainiar estatukoak eta %13 gainerako herrialdeetakoak.
- Azken horietatik, %73 europarrak ziren, %22 amerikarrak eta %5 gainerako kontinenteetakoak.
- Euskal Herrikoen artean, %82 Bizkaikoak ziren.



Aurten ezarri dute Getxo Taxi Tour zerbitzua. Behean Getxoko Turismo bulegoa

gain, eraikin mordoa dago adierazita mapan. Langileak Aixerrota eta Galeako itsas argia ikustea gomendatu digu, Getxoko bizitzaren sorlekua Andra Mari auzoa dela gogorarazi ostean.

«Bizkaiko Zubia da Getxoko “erreklamo” turistiko nagusia»


Mapakaz ez ezik, hamaika informazio-liburuxkagaz irten gara kalera. Orain badakigu, esaterako, Getxon Taxi Tour zerbitzua ezarri dutela: taxira igo eta hiri osoa ikus daiteke, gune interesgarrienetan geldialdiak eginez. Abentura-kirolak egiteko ere aukera ugari dauzkagu esku artean

(horietako asko Getxo inguruko herrietan egitekoak, ez Getxon bertan), eta zelan ez, hiriko kultur ekitaldien zerrenda oparoa ere bai. Orain, gozatzea baino ez dugu, kanpotarrak ez izan arren. ^m



Txetxu Portilla > Itxas Argia elkartearen presidentea

“Paelletan 300 koadrilla inguru espero ditugu”



Argazkian, Txetxu Portilla

Oso zaila da Aixerrotoako Nazioarteko Paella Lehiaketa mitikoaren arrakasta itzelaren zergatiak ematea; “inork ezin izango luke azaldu”, diño Txetxu Portillak, Itxas Argiaren presidentea. Getxoko elkarte horrek hartzen du jaialdi erraldoiaren antolaketaren ardura.

—Urte bi barru Getxon oso errotua dagoen paella lehiaketak urrezko ezteiak beteko ditu. Asko aldatu al da harrezkeroztik? —Ba ez, jendea da aldatu dena denbora horretan. Paella eguna beti izan da funtsean lehiaketa eta aurreko gaueko parranda. Baina agiriak arakatzen genbiltzala, jakin dugu 1957an edo 1958an bertso jarduna ere egoten zela. Beraz, ekitaldi hori berreskuratu gura izan dugu aurten, Algortako Bertsolari Eskolaren laguntzarekin.

—Dena ondo atera dadin, jende mordoa egongo da laguntzen, ezta? —Bai. Antolakuntzan ehun pertsona inguru gabilta apiriletik lanean.

—48. “paellada” honek zenbat lagun bilduko dituela uste duzu? —Aixerrota inguruan, 20.000tik gora, eguraldia lagun, noski. Bestalde, lehiaketan 300en bat koadrillen parte-hartzea egongo da, aurreko edizioetan bezalatsu. Eta ez dira guztiak Getxokoak edo ingurukoak izango, Araba edo Gipuzkoatik etorritako taldeak ere egongo dira tartean. —Ba horrek ederki adierazten du paella egunaren aparteko sona. Badaezpada gogoratuiko al duzu hitzordua? —Ia beti bezala, uztailaren 25ean (barikua) izango da. Goizeko 9etan hasiko da izen-ematearekin, eta arroz, egur eta mantalak ematearekin; koadrilla bakoitzari kilo bat arroz emango zaio. Bestalde, sari guztien banaketa (ia ehun kopa eta plaka izan daitezke guztira) arrastiko 5etan izango da.

«Ekitaldia uztailaren 25ean izango da, goizeko 9etan hasita»

—Zergatik sariak ez dira dirutan? —Zorionez, pizgarri horren beharrik ez daukagu jendearen parte hartzea bultzatzeko; horrek ez du esan gura urte batzuen buruan sariak dirutan eman beharko ditugunik. —Lehiakideek zer eroan beharko dute? —Paella-ontzia eta behar dituzten osagaiak. Horretaz aparte, euren ardura bakarra paella erre ez dadin izango da; hori da, hain zuzen ere, lehiaketa irabazteko gakoetako bat: arroza itsatsita ez egotea, solte baizik. Hiru sukaldariz osatutako epaimahaiak kontuan hartu ohi du hori beti, zaporeaz eta aurkezpenaz gain. ^m

**Arrozaren misteriorik handiena: zelan lortu itsatsita ez genatzea. Hori lortzen duenak saria dauka Aixerrotoako paella lehiaketan. Zorte on parte hartzaile guztiei, on egin eta ondo pasa!*

SAN LORENTZOKO FERIA PREST

Urtero legez, abuztuaren 10ean, goiz osoan zehar, egingo da Algortako San Lorentzoko azoka. Aurton, Euskal Herri osoko baserrietatik etorritako 80 ekoizle egongo dira 150 erakuslekutan banatuta. Bestalde, ohikoak diren gaztaia, egoskari eta landare txapelketez gain, berrikuntza bat egongo da: umeei zuzendutako abere erakusketa. Giroa berotzeko (berez beroa bada ere), zelan ez, trikitilari eta gaiteroak egongo dira.

XIX. FOLK JAIALDIA IRAILAREN 3TIK 7RA

Aurrerapen handiz bada ere (UK ez da irailaren 5a arte itzuliko), Getxoko XIX. Folk Jaialdiaren berri emango dizuegu. Zoritzarrez, lerro hauek idazteko unean ez dago zehaztuta zein izango den jaialdiaren egitaraua. Beraz, datak gogoraraztea besterik ezin dugu egin: irailaren 3tik 7ra izango da Erromon egiten den jaialdi beteranoaren edizio hau. Badakizu: egun horietan, aukera ona egongo da bestelako kulturak ezagutzeko.

ETXEBIZITZEN ZOZKETA GETXON

3.600 lagun sartuko dira laster (data zehatzik gabe UK hau itzeko unean) egingo den sustapen publikoko 68 etxebizitzaren zozketan. Horietatik, 32 Etxezurin daude eta Udaletxeak egin ditu; horien zozketan 1.600 lagun sartuko dira. Beste 36 Eusko Jaurlaritzak sustatu ditu, eta Ormaetxen (Aiboa) egongo dira. Horietako bat lortzeko izena eman zuten 10.000 lagunetatik 2.000k baino ez zituzten derrigorrezko baldintzak betetzen.

gogoratu!!

uk

oporretara doa
abuztuan

iraila arte!

Egitarau mamitsua

Saninazioetako jai-batzordeak aurtengo ekitaldien kalitatea azpimarratu gura du



Argazkiak: Mikel Martinez

«Aurten ez da sokamuturrik egongo Saninazioetan, lehen aldiz aspaldian»

Koadrilla gutxiago baina ekitaldi gehiago. Hala laburbil ditzakegu Saninazioak, jai-batzordean “*sei edo zazpi urte*” daroan Kini Noya algortar ezagunagaz berba egin eta gero. “*Egia da*”, dio Kinik, “*lehengo koadrillak jendetsuagoak zirela eta orain, behar-bada, apalago dagoela kodrilla jaitsiera, talde gutxiago eta gazteagoak daudelako*”.

Egitaraua, oster, hobetu egin da Ki-niren ustez, “*eta nahikotxo gainera*”. Aur-

ten, baina, ekitaldirik esanguratsuenetako bat kendu dute: sokamuturra. “*Hau izan-go da hori gertatzen den lehen aldia urte askoan*”, diosku Kinik atsekabez. Salatu duenez, sokamuturrerako lekua utzi behar zuen elkartek baldintza onartezinak (diru arlokoak eta bestelakoak) ipini dizkie jai-batzordekoei.

Tira. Sokamuturra barik ere, egitarau mamitsua edukiko dute Saninazioek. Ki-

nik hainbat ekitaldi azpimarratu gura ditu: batetik, lehiaketa gastronomikoa, “*duela gutxitik antolatzen hasi zen ekitaldia, baina arrakasta handiena lortu duena*”. Bestetik, tradizio handiagokoak: txirrindula lasterketa, su-festa, estropadak... Aurten, gainera, Euskal Herri-
tik kanpoko kulturei ere lekua egin gura diete. “*Izan ere, kanpotar asko etorten da Algortara urtean zehar*”. m



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Saninazioak

UZTAILAK 29, MARTITZENA

- ▶ Txupinazoa, pregoia eta ikurrinari omenaldia. San Nikolas plazan. 18:30
- ▶ Kodrillen jaitsiera. San Nikolas plazatik. 19:00
- ▶ Larrain-dantza. San Nikolas plazan. 20:30
- ▶ Poteo kalejira punk **Elektrotuna** taldeagaz. Herrian zehar. 20:30
- ▶ Umeentzako zinema. Zabala eskoletan. 22:00
- ▶ Kontzertua **Ekin, Ehiztari Beltza eta MCD** taldeakaz. Lekua zehaztu barik. 23:00
- ▶ Kontzertua **Haitzama** taldeagaz. Kasinoan. 23:00

UZTAILAK 30, EGUAZTENA

- ▶ Bertso tortila-jana herrikoia. San Nikolas plazan. 12:00
- ▶ Bertsolariak: **Aitor Mendiluze, Jon Maia, Sustrai Colina eta Xabier Paia**. Kasinoan. 13:00
- ▶ Koadrillentzako herri kirolak. Getxo Antzokiko enparantzan. 17:00
- ▶ Umeen jaitsiera. San Nikolas plazatik. 18:00
- ▶ Umeentzako berbena **Detra** taldeagaz. Biotz Alai plazan. 19:00
- ▶ Nagusientzako dantzaldia **Dantza Alai** taldearen eskutik. Zabala eskoletan. 19:00
- ▶ Larrain-dantza. San Nikolas plazan. 20:00
- ▶ Dantza garaikidea **Adeshoras** taldearen eskutik. Tellagorri. 20:00
- ▶ Esku pilota partidua. Andra Mariko pilotalekuan. 21:00
- ▶ Su artifizialak. Ereagako hondartzatik. 22:30
- ▶ Jai tropikala **Ahots&Company** taldeagaz. Kasinoan. 23:00
- ▶ Kontzertua: **Nun, Iraina eta Zea Mays**. San Nikolas plazan. 23:00

UZTAILAK 31, EGUNA, SANINAZIO EGUNA

- ▶ Saninazioetako Txirrindularitza Zirkutaren 58. edizioa. 8:30
- ▶ V. Txipiroi txapelketa. Biotz Alai plazan. 9:00
- ▶ Meza eta ohorezko aurrekua. San Inazio elizan. 12:00
- ▶ Euskal dantzak. Telletxen. 12:30
- ▶ Bertsolariak: **Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Amets Arzallus eta Fredi Paia**. Kasinoan. 13:00
- ▶ Estropadak: **Getxoko Ikurrinaren 25. edizioa**. 17:30
- ▶ Larrain-dantza. San Nikolas plazan. 20:00
- ▶ Kontzertua **Bouh** talde bereberraren eskutik. Kasinoan. 20:00
- ▶ Su artifizialak. Ereagako hondartzatik. 22:30
- ▶ Kontzertua: **Room 13, Konter eta Sorkun**. San Nikolas plazan. 23:00
- ▶ Kontzertua **Adunia** irlandar folk taldearen eskutik. Kasinoan. 23:30

ABUZTUAK 1, BARIKUA

- ▶ Saharar herriarenganako elkartsun ekitaldia. Getxo Antzokiko plazan. 12:00
- ▶ Bertsolariak: **Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexux Mari irazu eta Xabier Silveira**. Kasinoan. 13:00
- ▶ Koadrillen pentatloia. 17:00
- ▶ Umeentzako txokolate-jana. Kasinoan. 17:30
- ▶ Herri kirolak: **aizkolariak**. Telletxen. 19:30
- ▶ III. Jota eta Arin-arin **Txapelketa**. Kasinoan. 19:30
- ▶ Larrain-dantza. Kasinoan. 21:00
- ▶ Erromeria **Atarrabi** taldeagaz. Kasinoan. 22:00
- ▶ Umeentzako zinema. Zabala eskoletan. 22:00
- ▶ Kontzertua **Izotz** taldearen eskutik. San Nikolas plazan. 23:00

* OHARRA: Leku arazoak direla eta, interesgarrien iruditu zaizkigun ekitaldiak soilik sartu ditugu.

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50ko deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketara

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00



galdaretxe
gozodenda



- GETXO
- AREETA
- LEIOA
- ALGORTA
- SOPELA

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

san inazio
autoeskola

A1 - A - B - BTP - C1 - C
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
Urkiola, 4 / Tel. 94 430 06 05
ALGORTA

Polemika eta guzti badatoz jaiak

Jai-gune nagusia **kokatzeko** akordio ezak Erromoko jaiak zapuztu ditzake



Argazkiak: Mikel Martinez

«Arazoak arazo, ohiko ekitaldiak egongo dira aurtongo Erromoko jaietan»

Abuztuaren 1ean, Saninazio jaien azken egunean bertan, hasiko dira aurtengoa polemikaz gainezka datozen Erromoko jaiak. Ohiko jai-gune nagusian lanak abian direla-eta, hau idazten gabiltzala oraindik ez dago argi non kokatuko diren aurtengoa antzezleku nagusia, txosnak eta abarrak.

Horrek beste ondorio bat ekarri du, jai-batzordeko Jagoba A. Agirrek azaldu

digunez: *“Jai-gune nagusia non egongo den oraindik ez dakigunez, taberna askok iaz baino diru gutxiago eman digute aurtengoa”*. Erromoko jaietako aurrekontua merkatariek –eta batez ere tabernariak– emandako laguntzaz osatzen da, baina aurtengoa, esan bezala, arazoak dabilta.

Kontuak kontu, jaiak izango dira Erromon, ohiko ekitaldiakaz eta berrikuntzaren bategaz ere bai. Tradizio han-

dienekoen artean, Agirrek *“herrikoentzat oso polita izaten den”* poteo-rallya nabarmendu gura du, eta baita aurtengoa seigarren edizioa beteko duen ska-reggae jaialdia ere. Berrikuntza aipagarri bat artzain-txakur erakustaldia izango da: *“Ardiakaz lan egiten duten txakurrak ekarriko ditugu, eta –hemen nahikoa gauza ezezaguna da hori– ahateakaz da biltzanak ere bai”*. m

cianoplan s.a.

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Egitaraua

ABUZTUAK 1, BARIKUA

- ▶ Koadrillen bazkaria. Geltokiko plazan. 14:00
- ▶ Erromoko eta Pinuetako argazki historikoen erakusketaren inaugurazioa. Kultur Etxeko erakustaretoan. 17:00
- ▶ Umeentzako antzerkia, *Pirataklown* antzelanagaz. Cervantes plazan. 18:30
- ▶ Elkartasunezko merkatuaren irekiera. Eliza inguruan. 18:30
- ▶ Txupinazoa eta kalejira. Ibaiondotik hasita. 19:00
- ▶ Jubilatuen afaria. Nagusien Etxean. 20:00
- ▶ Kontzertua: herriko talde bi+Ekon+PiLT. Lekua zehazteke. 22:30
- ▶ Erromeria *Luhartz* taldeagaz. Ganeta plazan. 00:00

ABUZTUAK 2, ZAPATUA

- ▶ Petanka txapelketa. Pinuetako Jubilatuen Etxean. 12:00
- ▶ VI muztio-rallya. Lekua zehazteke. 13:00
- ▶ Bertsosaioa. Txosnetan. 13:00
- ▶ Mus azkar txapelketa. Eleizalde tabernan. 16:00
- ▶ XXXV. poteo-rallya. Hasiera eta amaiera, jai-batzordearen txosnan. 18:00-21:00
- ▶ Iparraldeko herri kirolak. Geltokiaren inguruan. 18:30
- ▶ Umeentzako mozorro lehiaketa. Cervantes plazan. 19:30
- ▶ III. Bilbainada Jaialdia: *Indarra*. Lekua zehazteke. 20:00
- ▶ Jubilatuentzako mozorro lehiaketa. Pinuetako Jubilatuen Etxean. 21:00
- ▶ Koadrillen play-backa. Santa Eugenia 23n. 22:30
- ▶ Erromoko VI. ska-reggae jaialdia. Txosnetan. 23:00
- ▶ Erromeria *Miramar* taldeagaz. Ganeta plazan. 00:00

ABUZTUAK 3, DOMEKA

- ▶ Nekazal azoka. Geltokiaren inguruan. 11:00
- ▶ Tortila lehiaketa. Eskoletan. 12:00
- ▶ Umeentzako parkea. Artatzen. 16:30
- ▶ Artzain-txakurren erakustaldia. Artatzen. 17:30
- ▶ Kalejira eta bertsopoteoa. Herriko kaleetan zehar. 19:30
- ▶ III. Bilbainada Jaialdia: *Los Cinco Bilbainos*. Ganeta plazan. 20:00
- ▶ Hard Rock kontzertua. Lekua zehazteke. 23:00

ABUZTUAK 4, ASTELEHENA

- ▶ Briska txapelketa. Pinuetako Jubilatuen Etxean. 12:00
- ▶ Txotxongilo antzerkia Rosa Maria Martinezen eskutik. Ganeta plazan. 13:30
- ▶ Musika klasikoa Crsitina Sánchez eta Sylviaren eskutik. San José elizan. 18:30
- ▶ Herri kirolak: harrijasotzaileak, sokatira eta idi-probak. Gesaltzun. 19:30
- ▶ Gotiberen erlojuaren kontrako igoera. Lekua zehazteke. 21:30
- ▶ Umeentzako zinema euskaraz. Santa Eugenia 23n. 22:00
- ▶ Ipuin kontalariak helduentzat. Ganeta plazan. 23:00
- ▶ III. Umerezko film laburren jaialdia. Txosnetan. 00:00

ABUZTUAK 5, MARTITZENA

- ▶ Tute txapelketa. Pinuetako Jubilatuen Etxean. 12:00
- ▶ Jai amaierako kalejira herrikoia. Hasiera eta amaiera, jai-batzordearen txosnan. 19:30
- ▶ Koadrillen sari banaketa. Txosnetan. 21:00
- ▶ Txorizo eta odoloste-jana. Jai-batzordearen txosnan. 21:00
- ▶ “Pobre de mí”, fanfarriakaz. Hasiera eta amaiera, jai-batzordearen txosnan. 22:30
- ▶ Su artifizialak. Golf Zaharraren plazatik. 23:45
- ▶ Kale antzerkia (taldea zehazteke). Artatza parkean. 00:15

* OHARRA: Leku arazoak direla eta, interesgarrien iruditu zaizkigun ekitaldiak soilik sartu ditugu

BRIXTON
DENDA
Ropa & Música
C/ Kresaltxu 4 - Erromoko
Getxo - 48930 - Bizkaia
Tel./fax: 94 464 81 04
brixton@euskalnet.net
www.euskalnet.net/brixton

DONOSTI
TABERNA

Giro ona
Plaza Xaho, 1 - ROMO

*Jai giro aparta!
Gurea da
garaipena!*

krimea

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82
AREETA

www.berria.info

Artatza jauregia

historia apur bat

Manuel María Smith bilbotar arki-
rektoak diseinatu zuen, 1914an, Leioan
bertan eta Leioatik kanpo hain ezaguna
den Artatza jauregia, Víctor Chávarri
enpresariarentzat. Diotenez, Smithen
lanik bikainena da Ana Erregina ingala-
tarrar estiloan egindako eraikin hau.

Jauregia 30 hektareako eremu baten
eginda dago, Artatzako areatzen hain
zuzen, eta hortik datorkio izena. Garai
batean, kriket zelaia, baratza, abereek
jateko belardiak, beira eta burdinezko
negutegia, ur-biltegia eta hainbat oilate-
gi zeuzkan. Gaur egun, Eusko Jaur-
laritza da Artatzako Jauregiaren ugaza-
ba, eta sarritan ekitaldi publiko zein pri-
batuak egiteko erabiltzen da. ^m



Datorren urteko Ibilaldia aurkeztu zuten lagunak

Ibilaldia, gaurdanik

Urte osoan egin beharreko lana azpimarratu
dute ikastolen jaiaren antolatzaileek

Joan den uztailaren 3an aurkeztu zuten
2004ko Ibilaldia Leioan, komunikabide
ugari bildu zituen prentsaurreko batean.
Leioako Betiko eta Sopolako Ander Deuna
ikastolek antolatuko dute Ibilaldia, eta han
egon ziren bietako ordezkariak, Bizkaiko
Ikastoletako Elkarte (BIE) zuzendariak
eta Leioako eta Sopolako alkateak gain.

Koldo Tellitu Betikoko presidenteak
Ibilaldiaren hiru helburu nagusiak aipatu
zituen: batetik, ikastolak eta ikastolen hez-
kuntza eredu eskualdean zabaltzea; beste-
tik, ikastola biek behar dituzten baliabide
ekonomikoak eskuratzen laguntzea; azke-
nik, euskal kultura sustatzea. Ildo horreta-

tik, *“gurea eskualde euskalduna izan arren,
erabilpen maila ez da oso handia”*, esan zuen.

Jose Ituartek egin zuen berba Ander
Deunaren izenean. Besteak beste, Ibilaldia-
ren logotipoa aurkeztu zuen Ituartek: surf-
ohol baten gainean dabilen lamia bat. Hau
da, Leioan garrantzi handikoa den pertso-
naia mitologikoa Sopolan indar handia dau-
kan kirola egiten.

Antolatzaileek Ibilaldia urte osoko lana-
ren emaitza dela gogorarazi zuten. Manu
Aurrekoetxea BIEko zuzendariak adierazi
zuenez, *“2.000 lagunetik gora ibiliko da lane-
an –gehienak bolondresak–, 40.000 lan ordu
eginez, Ibilaldiari gorputz emateko”*. ^m

elkartea > Lila Gorriak

Emakumeak eta gazteak



Elkarteko kideetako batzuk

Duela zazpi urte sortu zen *Lila Go-
rriak* emakume taldea. Saioa Hernández
leioztarrak 26 urte dauzka, eta hasiera-
hasieratik dago talde *“gazte eta feminis-
ta”* honetan, beraren berbak erabiltea-
rren. *“Sortu zen momentuan gazte mugi-
mendua gora zihoan herrian”*, dio Her-
nándezek, *“eta geuk ere hala definitu ge-
nuen geure burua: gazte”*.

Lila Gorriak-ek lan ildo bi hartu
zituen sorreratik: *“Batetik, eraso sexisten
kontrako jarduna; bestetik, publizitatearen
azterketa”*. Lehenengoari dagokionez,
kartelez bete dituzte herriko tabernak,

erasoen aurkako mezua zabaldu guran.
*“Gainera, mobilizazioak antolatzen ditugu
data jakinetan: erasoaren aurkako egunean
(azaroak 25), martxoaren 8an...”*.

Publizitatea da, esan bezala, Lila
Gorriak-en jardunaren beste zutabeeta-
ko bat, *“gizarte matxistaren adierazpide-
rik argienetakoa da-eta”*. Horren (eta
haren menpeko mundu honen beste
alderdi batzuen) aurrean, ekintza desber-
dinak antolatzen dituzte: kafe-tertuliak,
ikastaroak... Udan, hori bai, lasaiago
hartzen dute lana, Hernándezek aitortu
digunez. ^m

“NI GAZTE NINTZENEAN...” NARRAZIO LEHIAKETA

Leioako Kultur Etxeak “Ni gazte nintzenean...” narrazio lehiaketaren deialdia egin du aurten ere. Laugarren edizio honetara aurkeztu nahi diren lanak datorren irailaren 12a baino lehenago eman beharko dira. Lanek orrialde bi eduki beharko dituzte gutxienez, eta sei gehienez. Narrazio bakoitzaren hiru kopia emango dira, goitizen batez izenpetuta, eta guztiz berriak, argitaratu gabekoak eta inongo lehiaketatan saritu gabeak izan beharko dute. Txapelketa lau sailetan banatuta dago, egileen adinaren arabera, eta bakoitzean euskarazko edo gaztelerazko lanak aurkeztu ahal izango dira. Epaimahaiak urriaren 30ean erabakiko ditu irabazleak, eta hurrengo egunean banatuko dira sariak, 20:00etan, Artatza jauregian.

BEROGAILU ETA ITUR -



T: 430 53

Sarrikobaso 15

ETXEKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -

Lacofris, s.l. SERVITEC

¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
¥ 3 HILABETKO GARAN-
TIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

**KURKUDI
LIBURUDENDA**

**Euskarazko
irakurgai**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

ERROTULOAK



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu**

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**udondo
taberna**

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Goikoako etxebizitzak

1.100 pertsona

udaletxean eskabideak aurkezteko lehen egunean

Sekulako interesa piztu dute Erandio Goikoan egingo dituzten babes ofizialeko etxebizitzek. Dentsitate baxuko 98 etxebizitza dira egitekoak. Horietatik 4 mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitu eta gordeko dira; 35 urte baino gutxiago duten familientzat beste 35 gordeko dira, eta adin txikikoen ardura duten kide bakarreko familientzat 2. Gainontze-koak aurreko multzoetan sartzen ez direnentzat.

Adosatu erako etxebizitza horietakoren bat eskuratzeko, azken 10 urteotan Erandion erroldatua egotea eskatzen da, edo bestela, jatorriz Erandiokoa izan eta gurasoak herrian errolaturik egotea. Eskabideak aurkezteko epea zabalik izango da irailaren 26ra arte, eta ekainean 2.100 bat eskabide-orri banatu dira. Dagoeneko 540 lagunek aurkeztu dute eskabidea behar bezala bete-ta; 70 bat pertsonaren eskabideak bota dituzte atzera, ordea, eskatutako baldintzaren bat ez betetzeagatik. m

gogoratu!!

uk

oporretara doa abuztuan

iraila arte!

Ramón Aznar > arte ederretako ikaslea
AEBetako *Umbrella* arte aldizkari ospetsuaren azal bat egin du

“Ez dut arte egitetik bizitzea espero”



Argazkian, Ramón Aznar

Ramón Aznar erandioztarra 38 urteko Arte Ederretako ikaslea dugu. Joan den martxoan Estatu Batuetako Santa Monika hiriko “Umbrella” aldizkari espezializatuak Ramonen lan bat argitaratu zuen azaleko orrian.

—38 urte eta oraindik ikasle...
—Bai, baina denbora luzea neraman lanean ikasketak hasi baino lehen. Urtean sei bat ikasgai besterik ez ditut egiten, beraz oraindik nire ikasketek luze joko dute.
—Berandu hasi zinen Arte Ederrak ikasten, zergatik?
—Egia esan, arrazoï nagusia titulua lortzea zen. Aireportuan egiten dut behar, eta lanpostuan gora egiteko tituluren bat eskatzen zidaten. Aitzakia horrekin hasi nintzen. Grafia eta eskulangintza gustatzen zitzaizkidan eta horregatik otu zitzaidan Arte Ederrak ikastea.
—Zure arte lanetatik bizitzea espero duzu egunen batean?
—8 urte eman nituen artisautza egiten, eta ez dut uste artetik bizitzea interesa zaida-

nik. Artetik hiru baino ez dira bizi. Aireportuko lanak denbora uzten dit, eta horrek nire bizitza egiteko aukera eskaintzen dit.
—Hala ere, Umbrella aldizkariaren azala egiteak irekiko dizu ateran bat, ezta?
—Tira, seguru asko ate batzuk bai, “Curriculum” gisa oso ondo datorkit, zalantza barik. Baina ez dut ospea bilatzen. Ni oso gustura nago Bilbao Arte lantegian, hango espazio eta baliabideak erabiltzen, grafiazko proiektuekin esperimentatzen.
—Artea bai, baina nolako da zure lana?
—Nik grafia egiten dut. Ez dut oleorik edo eskulturarik egiten. Serigrafia asko landu dut, paperean, oholean zein igeltsuaren gainean. *Umbrellan* argitaratutako lana serigrafiakoa da.
—Nola bururatu zitzaizun lan bat igortzea Estatu Batuetako aldizkari batera?
—Ideia ez zitzaidan niri otu. Ikasgai bat gainditzeko egin nuen lan hura. Irakasleak proposatu zigun aldizkariarena. Lanean, aldizkarian argitaratzeko euritako bat agertu behar zela esan zigun. Aldizkariaren azalean beti agertzen ei da euritakoaren bat. Ni, egia esan, apur bat harriturik nago istorio honek izan duen oihartzunarekin.

«Harriturik nago istorio honek izan duen oihartzunarekin»

—Noizko erakusketa Erandion?
—Askotan egon naiz udaletxeko gelaren bat eskatzeko baina azken unean atzera egin dut, ez zait oso gustatzen “ofizialtasun” hori. Beste batean ostatu batean egin nahi izan nuen erakusketa txiki bat, baina azken momentuan atzera egin genuen, eta bertan behera geratu zen proiektua. Hala ere, gus-tura egingo nuke. m



110 neska-mutilentzako lekua izango da aurt

Udaldia kirola eta txangoak uztartzen dituen egitaraua

Iazko arrakastaren ondoren, aurt

Futbola, eskubaloia, saskibaloia eta herri kiroletako ikastaroak Erandioko kirol elkarteetako kideek zuzentzen dituz-

te, eta horrez gain badute igeriketa, aerobic, dantza eta judoa ere.

Astearte eta ostegunetan, berriz, kiroldegi barrutik irten eta herritik kanpora doaz bestelako ekintzak egitera: Urdulizko hipikara, La Reinetara funikularrean, Zamudioko kanpoko igerilekue-tara, itsasadarreko museo berrira edo Bilbotik Abraraino, Pil-Pil itsasontzian.

Euskara Zerbitzuaren begirale ikastaroa amaitu berri duten gazteek dihardute txangoetan zein kiroldegiko jardueretan neska-mutilak laguntzen. Izan ere, guztiz prest dira lanerako, Urtxintxa elkarteak garatzen duen urte biko begirale ikastaroa osatu ondoren. m

BIZKAIKO EMAKUMEZKOEN TXIRRINDULARITZA TXAPELKETA, ERANDION

Erandio jopuntua izango da berriro txirrindularitzarako, hilaren 27an. Unión Ciclista de Erandio izeneko taldeak Bizkaiko Emakumezkoen Txapelketa antolatu du egun horretarako, eta ziurtzat jo ez badu ere, litekeena da 40 txirrindulari inguru irteeran izatea.

Ibilbidea maila bakoitzaren neurrikoa izango da kilometroei dagokienez. Horrela bada, kadete mailako txirrindulari gazteek 40 kilometro egin beharko dituzte, zortzi kilometroko ibilbideari 5 bira emanez. Junior mailakoen lana gogortsuagoa izango da, 60 kilometro egin beharko dituzte-eta. Azkenik, elite mailakoek 80 kilometro egin beharko dituzte, 8 kilometroko zirkuitu horri 10 gira emanez.

Unión Ciclista de Erandio taldeko presidente Angel Gabantxok adierazi duenez, Bizkaiko Txapelketa honen ibilbidea honako hau izango da: Erandio (Altzaga), Axpe, Leioa, La Avanzada, Astrabudua eta Erandio (Altzaga).

SOLDATA BERRIAK UDAL AGINTARIENTZAT

Alderdi guztien aldeko botoekin (PPren abstentzioa salbu), alkatearentzako zein alderdientzako erretribuzioak handitzea erabaki zuen udalbatzak azken plenoan. Gauzak horrela, alkateak 55.749 euro kobratuko ditu (%15 igoera) urtean. Zinegotziek plenoetara joateagatik 300 euro jasoko dituzte, eta 155 batzorde informatiboetan parte gartzeagatik. Lehen, hilero 365 euroko ordain finkoa jasotzen zuten. Alderdiei dagokienez, EAJk 2.205 euro jasoko ditu hilero, 1.190 PSEK, 900 PPK eta 610 EBk.

SATISTEGI

CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Carro

K-Rock izango da aurrerantzean

Joan den uztailaren 10ean egin zen, Larraabasterran, K-Rock tabernaren inaugurazioa. Horrela esanda, ez dirudi aparteko albistea, baina K-Rock hori lehengo Carro tabernak hartu duen izen berria dela badinogu, gauzak aldatu egiten dira. Urte mordoa egon da zabalik Carro, Uribe Kosta osoan ezaguna izan den estilo bereziko taberna, eta azkenik Fernandok, ugazabak, aldaketa sakona egitea erabaki du. Hainbat hilabete iraun duten lanen ostean, azkenik, tabernak izena eta itxura aldatu ditu; orain, gazteriari begira eraturiko taberna modernoa izango da. Dena dela, lehengo Carroren ezaugarri batzuk ere gordeko dira, zurrumurruen arabera. Tabernaren azpiko aldeak gordeko luke izaera hori. Baina diogunez, zurrumuruak baino ez dira.

Carro hil da, bizi bedi K-Rock! ^m

Aurkezpen eguneko giroa



LAIK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Sopela udarako hiria?

Gero eta gutxiago ei dira Sopelan uda osoa igarotzen duten beste herrietako **bisitariak**



Herrian, urrezko garaia orain dela 30 urte izan zen

Tradizioz, Sopelak biztanle gehiago eduki ohi ditu udan. Etxebizitza asko hutsik egoten dira gainerako urtarotetan, baina oporrrak hasita uda igarotzera datozenakaz betetzen dira, bilbotarrak gehienak, eta batez ere Arrietara eta Sopelmarreko auzoetan.

Gertakari horren benetako neurria ezagutu guran, udatiarren “inbasioa” gehien igartzen dutenetako batzukaz egin dugu berba: tabernariakaz, hain zuzen. Dinoenez, beherakada ederra egon da garai batekoagaz alderatuta. Izena eman

gura ez digun tabernari batek adierazi digunez, “*urrezko garaia duela 30 urte izan zen*”. Antza, orduan etxea zeukaten berberak dira oraindik etorten jarraitzen dutenak. Udatiarrak, beraz, nahiko edadekoak izaten dira.

Izan ere, gero eta gehiago dira udan, etorri beharrean, joan egiten direnak bertatik kanpora, “*azken urteotan bizitzera etorri direnak batez ere*”. Hala ere, oraindik gehiago dira datozenak. Gauza bitxi bat gertatzen da gainera: “*Lehengo udatiarraren seme-alabetako asko berton geratu dira bizi izaten urte osoan, lehen udarako baino ez ziren etxeetan, hain zuzen ere*”.

Ez dago daturik udan Sopelak daukan biztanle kopuruaren gainean. Bestetik, badakigu herriak dauzkan 5.326 etxebizitzetatik 1.400 hutsik daudela (1996an, 1.589 ziren). Zoritxarrez, datuotan ez dira bereizten urte osoan hutsik daudenak eta udan betetzen direnak. Zeuek atera kontuak, beraz. ^m

Danae Usán > ilustraziogilea

Sopeloztar ilustratua



Argazkian, Danae Usán gazte sopeloztarra

Joan den ekainean Areetan egin zen Getxoarte erakusketan Uribe Kostako 15 artistak erakutsi zituzten euren lanak. Horietako bat Danae Usán 23 urteko sopeloztarra da. Danaek (izena beraren aitite batek greziar mitologiagaz zeukan zaletasunetik datorkio) Arte Ederrak amaitu ditu aurten, eta ilustrazioa da gehien lantzen duen esparrua, “*behintzat, nik egiten dudana Ingalaterran ilustratuztat hartzen da, hemen pinturatzat hartzen den arren. Hemen zabalagoa da margolaritza kontzeptua*”.


Ingalaterrako ohituren ezagutza ez datorkio ezerezetik. Han ibili zen ikas-

ten, eta gainera, Erasmuseko ikasleen erakusketa baterako aukeratu zuten. Beste lan batzuk ere egin ditu sopeloztar gazte honek. Esaterako, Bilbon duela ez asko hain ezagun egin ziren behietako bat berak margotua zen.

Orain ikasten jarraituko du, ilustrazioaren teknikak ondo menperatzeko. “*Karrera egiten hasi nintzenean ez neukan oso argi nondik nora jo gura nuen. Orain badaukat, eta sakondu egin gura dut*”. Honetatik bizitzea zaila dela badaki, baina ez da hori beraren lehen helburua. “*Gustuko nuen egin gura nuen. Horregatik hasi nintzen ikasten*”. ^m

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TXAPELKETA ABIAN JARRI DU UDALAK

Udalak IKT –Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia– lehiaketarako deialdia zabaldu du berriki. Lehiaketa honek aurreko urte bietan egin den “htmliarizate”-ren lekua hartuko du, eta baita esparrua zabaldu ere; hemendik aurrera, web orriak ez ezik –orain arte bezala–, Power Point-ez egindako lanak ere sarituko dira. Lanak emateko epea urriaren 31a arte dago zabalik, html euskarian egindakoen kasuan. Sopelaren gaineko gaiez jardun behar dute lanok, eta Informazio, Komunikazio eta Turismo sailera igoriko dira. Udaletxeak horien erabilera publikoa egiteko aukera edukiko du kontuan; horretarako, hainbat alderdi aztertuko dira: lana elebidun izatea, egilearen adina, gaiak zelan jorratu diren... Bestalde, lehen saria 500 eurokoa izango da, eta bigarren eta hirugarrenarentzat 250 euroko sari bana egongo da. Beste sari batzuk ere egongo dira.



Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixzarreniak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Tellexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

MUGI

FISIOTERAPIA ZENTRUA

- × Tendinitis
- × Esgintzeak
- × Bizkarreko Erreuma ×
- × Kiroleko lesioak ×

Loitzun Izaola

Azkona

Fisioterapeuta, 459 kolegiatu zenbakia

Mendieta 2, SOPELA

617 67 45 36

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00
Domika eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

Bakailao

txapelketa abuztuaren 10ean

Berangoko Pil-Pil Erako Bakailao Txapelketa Bizkaiko zaharrena ei da. Abuztu honetan 47. edizioa egingo dute, eta horren ganean egin dugu berba antolatzaile taldeko kide María Basagurenegaz. Abuztuaren 10ean izango da aurtengo lehiaketa; hil bereko 7tik txapelketaren egunera arte eman daiteke izena, telefonoz edo egunean bertan hara joanez. Ohi bezala, “bakailao onenerako ez ezik, koadrileentzako sariak ere egongo dira, eta baita baserritarrez jantzitako ume lehiaketaren irabazleentzat ere”. Basagurenek arauak gogorarazi dizkugu: “Sua erabili behar da, ezin da butano edo antzekorik erabili, eta bakailaoa bertan egin behar da; gutxienez lau xerra egon behar dira lapikoan, eta bakoitzeko berakatz zati bana beste apaindurarik ez da onartzen. Gizon zein emakumeek egin dezakete”. Arau hori duela “zortzi edo bederatzi urte” ezarri zen, lehen gizonek bakarrik egin zezaketen eta. ^m
Izena emateko: 677 55 60 77



HIRU SAIL BERRI UDALEAN

Duela gutxi egindako osoko bilkuran onartu denez, Berangoko Udaletxeak hiru sail berri edukiko ditu aurrerantzean: Giza Eskubideak, Teknologia Berriak eta Emakumea. Lehehengoa alkatearen beraren esku egongo da, eta jazarpenez, presoen egoerez eta giza eskubideen urraketagaz zerikusia daukaten bestelako gaiez arduratuko da. Emakumeen arloari dagokionez, aurrekontu garrantzitsua edukiko du, berdintasun-ekimenei ekiteko. Orain arte, Emakumearen arloa Gizarte Ongizatearen barruan egon da.



Iñaki González, Otxandategi dantza taldeko presidentea

60 urte ospakizun handia

Simón Otxandategi dantza taldeak nazioarteko jaialdi bategaz ospatuko du 60. urtemuga

Gutxienez 60 urte dauzka Simón Otxandategi dantza taldeak. 1943an taldea egon bazegoela frogatu ahal izan da, lehenagotik existitzen ete zen jakiterik ez badago ere. Kontuak kontu, aurtten 60. urteurrena ospatzeko prestakizunetan dabiltza taldeko kideak. Abuztuan izango da ospakizun hori, eta atzerriko hainbat talderen parte hartzea edukiko du. Izan ere, Berangoko I. Nazioarteko Jaialdia antolatuko dute otxandategitarrek euren urtebetetzea dela eta.

Iñaki González taldeko presidentegaz egin dugu berba abuztuko ekitaldiez. Gonzálezek 33 urte daroaz Otxandategin, eta ia hasieratik izan da presidentea gainera. “*Abuztuaren 15, 16 eta 17an izango da jaialdia*”, diosku, “*eta batez ere dagoeneko eza gutzen ditugun taldeak etorriko dira, Austriakoak, Holandakoak, Flandriakoak, Kataluniakoak...*”. 1991tik, Otxandategi dantza taldeak lau bidaia egin ditu atzerriara,

jaialdietan parte hartzera, eta bertan eza gututako talderen bat ere hartu izan du Berangon. Orain, horiek denak batzea da asmoa. “*Horrez gain, Alemaniako talde bat ekarriko dugu, oso maila onekoa, dakigunez*”, gaineratu du Gonzálezek.

250 lagunetik gora

Gutzira, atzerriko 250 lagun baino gehiago elkartuko dira Berangon abuztuko lauzybost egunez. Lantzarateko zelaletan ipiniko den karpa handian egingo dira urteurreneko dantzaldi eta ekitaldiak, eta horietan dantza taldeko kide ohiek ere parte hartzea gura dute Otxandategikoek: “*Entseguak egin ten hasi gara dagoeneko, inoiz taldean ibilitakoak ere, dantza eginez, ospakizuneko parte izan daitezten*”. Taldeko presidenteak dioenez, protagonismo berezia eman gura diete “*euren lanaz taldea honaino ailegatzea posible egin dutenei*”. ^m

Harremanetarako: 94 668 07 32

Jaiak

berriro hemen



La Polla taldeak joko du Santodomingotan

Ate joka dauzkagu, beste urte batez, Santa Ana eta Santo Domingoko jaiak. Lehenbizikoek hiru egun iraungo dute, Santo Domingokoek baino bat gutxiago beraz, eta bai batzuetan bai besteetan ohiko ekitaldiak egongo dira. Nabarmentzeko, abuztuaren 3an La Polla talde historikoak emango duen kontzertua. Gainerakoan, denetarik egongo da; umeek bereziki, aspertzeko arrazoi gutxi izango dute, eurei zuzendutako ekitaldi mordoa dago eta. ^m

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

AENOR

ER

Empresa Registrada
ER-1891/2001

AENOR

GA

Gestión Ambiental
CGM-02/006

KLIMATIZAZIO

INGENIAIRTZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net

SANTA ANA

UZTAILAK 24, EGUAZTENA

- Koadrillen jaitiera eta aurkezpena. 17:30
- Erromeria Amaiur taldeagaz. 23:00

UZTAILAK 25, BARIKUA

- Zaldi probak. 19:00
- Koadrillen play-backa. 20:00
- Kontzertua: Habeas Corpus. 23:30

UZTAILAK 26, ZAPATUA. SANTA ANA EGUNA

- Txirrindula lasterketa. 11:00
- Bertsolariak. 19:30
- Koadrilla arteko herri kirola. 20:00
- Erromeria *Trikita Ke* taldeagaz. 23:00

SANTO DOMINGO

ABUZTUAK 2, ZAPATUA

- Koadrillen igoera. 20:30
- Erromeria *Ene Bada* taldeagaz. 23:00

ABUZTUAK 3, DOMEKA

- Mus txapelketa. 11:00
- Koadrillen arteko ginkana. 20:30
- Kontzertua *La Polla* taldearen eskutik. 23:00

ABUZTUAK 4, ASTELEHENA, SANTO DOMINGO EGUNA

- Meza nagusia. 12:00
- Nagusientzako hamaiketakoa eta dantzak. 13:00
- Pailazoak: *Kiki, Koko, Moko eta Flax*. 19:00
- Idi probak. 20:00
- Su artifizialak. 23:00
- Erromeria *Sorbeltz* taldeagaz. 23:30

ABUZTUAK 5, MARTITZENA, SANTO DOMINGOTXU EGUNA

- Kale antzerkia: El Tragasueños. 19:30
- Txokolate-jana eta erromeria *Aitzama* taldeagaz. 20:00
- Pilota partidua. Pilotalekuan. 20:00

* OHARRA: Leku arazoak direla eta, interesgarrien iruditu zaizkigun ekitaldiak soilik sartu ditugu.



TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ


T: 94 676 07 15



etorri
eta
ikusi!!

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



BASARTENA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Ajuria

taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



[herriak]

BARRIKA

Piragua Taldeagaz berbetan

Barrikako mendatea hasten den bihur-gune itxian, Plentziatik oso hurbil, Ba-rrika Piragua Taldearen egoitza dago: oso handia ez den areto bat, piragua asko, tro-feo batzuk eta gimnasio txiki bat. Han elkartu gara Patxi García presidentegaz eta Naiara Gómez eta Raúl Lartategi en-trenatzaile eta piraguistakaz.

Kluba duela bost urte sortu zen. Helburu bikoitza dauka, García dioenez: *“Alde batetik, lehiaketan jarduten dugu, eta horretarako propio sortu zen taldea gainera; bestetik, kirol hau zabaltzeko asmoa ere badaukagu”*. Duela gutxi turismokoa

deritzan saila abiarazi dute, alegia, lehiat-zen ez dihardutenena. Bederatzi urtetik aurrerako umeak joan daitezke ikastaroe-tara.

Taldean dabiltzan 60 piraguista ingu-rutik (lehiaketetan jarduten dutenak 35en bat dira), Naiara Gómez getxoztarra da arrakasta handien lortu duena. Duela urte bi Munduko Kopa irabaztea lortu zuen. Iaz, berriz, bosgarren izan zen Munduko Txapelketan eta hirugarren Munduko Kopan. Elkarrizketa honen biharamune-an Poloniara joatekoa zen Naiara, Euro-pako Txapelketan parte hartzera. m

Lehen planoan, Patxi García elkartearen presidentea; atzean, taldeko arraunlari batzuk



GORLIZ

Badatoz Santiagoak

Hilaren 24an hasiko dira aurtengo San-tiagoak Gorlizen, eta 27a arte iraungo dute. Ekitaldiz betetako lau egun izango dira, baina zoritxarrez, ez dugu lekurik denak aipatzeko. Beraz, azpimarragarrie-netako batzuen berri emango dizuegu.

Lehen egunean, Gorlizen tradizio bihurtu den koadrilla jaitsiera izango da, arratsaldeko 8etatik aurrera, eta gau

horretan Urtz talde ezagunak joko du. Uztailaren 25 eta 26ko goizek Nekazal Azokaren XV. edizioa ekarriko digute; arratsaldeetan, berriz, mozorro lehiaketa edukiko dugu 25ean eta playbackekoa 26an. Gauez, jakina, erromeriak Urgabe eta Sailean taldeakaz hurrenez hurren. Jaiei agur esateko su artifizialak botako dira hilaren 27an (domeka) iluntzean. m

Uztailak 18-Abuztuak 20

[agenda]

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

MUSIKA

BARRIKA

► **The Reverendos.** *Golfo Norte* tabernan. Uztailak 19, zapatua. 23:00.

BERANGO

► **Habeas Corpus.** Santa Ana (jaiak). Uztailak 25, barikua. 23:30.
► **La Polla.** Elizaren inguruan (jaiak). Abuztuak 3, domeka. zapatua. 23:00.

ERANDIO

► **Erandio Musikalean.** Musika eki-taldiak herriko kaleetan zehar. Trikitilariak, gaiteroak, txistulariak, bertsolariak... Abuztuak 9, zapatua. Egun osoan zehar.

GETXO

► **Ekin+Ehiztari Beltza+MCD.** Lekua zehazteke (Algortako jaiak). Uztailak 29, martitzena. 23:00.
► **Nun+Iraina+Zea Mays.** Algortako San Nikolas plazan (jaiak). Uztailak 30, eguaztena. 22:30.
► **Ahots&Company (musika tropi-kala).** Algortako Kasinoan (jaiak). Uztailak 30, eguaztena. 23:00.
► **Room 13+Konter+Sorkun.** Algortako San Nikolas plazan (jaiak). Uztailak 31, eguena. 23:00.
► **Adunia (Irlandako folk taldea).** Algortako Kasinoan (jaiak). Uztailak 31, eguena. 23:30.
► **Ekon+Pi LT+herriko talde bi.** Lekua zehazteke (Erromoko jaiak). Abuztuak 1, barikua. 23:00.
► **Ambassah Dub Generation+Granadians del Espacio Exterior+Very Big Jahbrass Band+Major Troubles.** Erromoko txosnetan (jaiak). Abuztuak 2, zapatua. 23:00.

GORLIZ

► **Jon Urrutia jazz laukotea.** Elizan. Uztailak 18, barikua. 20:15.
► **Sinfonietta Ricercare.** Elizan. Uztailak 19, zapatua. 20:30.
► **Urtz.** Elizako plazan (jaiak). Uztailak 24, eguena. 23:30.
► **Urgabe.** Elizako plazan (jaiak). Uztailak 25, barikua. 23:30.
► **Gauchos 4.** Iberrebarrin (jaiak). Uztailak 26, zapatua. 00:30.
► **Kepa Junkera.** Iberrebarrin. Uztailak 30, eguaztena. 22:30.
► **Tonino Coscarelli Olarra Fundazioa.** Elizan. Uztailak 31, eguena. 20:15.

SOPELA

► **Alaitz eta Maider.** Urgitxieta pla-zan, Larrabasterra (Santa marina eguna). Uztailak 20, domeka. 20:30.



► FOLKLOREA

Azterriko dantzak Erandion

Datorren uztailaren 23an Nazioarteko Folklore Jaialdia egingo da Erandion. Uribe Kostan mota horretako ekitaldietarako garai oparoa dela ematen du, egunotan egiten dabilza-eta Getxokoa, eta abuztuan Berangon ere egingo da. Erandiokoan (Altzagako kiroldegian), talde bik parte hartuko dute: Txetxeniako Konpainia Estatalak eta Guadala-jarako (Mexiko) folklore-balletak. Goza dezazuela.

Non: Altzagako kiroldegian • **Noiz:** Uztailak 23, eguaztena • **Ordua:** 19:00

ERAKUSKETAK

GORLIZ

► **Kaleko pintura lehiaketaren erakusketa.** Lekua zehazteke. Uztailaren 27tik 31ra.
► **Victor Salazar eta Begoña Artetxe.** Udal erakusgelan (José Antonio Agirre plazan). Abuztuaren 1etik 7ra.
► **Ana Ansotegiren margolanak.** Udal erakusgelan (José Antonio Agirre plazan). Abuztuaren 8tik 14ra.
► **Paul Ygartua.** Udal erakusgelan (José Antonio Agirre plazan). Abuztuaren 15etik 21era.

PLENTZIA

► **Beatriz Solerren margolanak.** Goñi Portalen. Uztailaren 16tik 30era.

URDULIZ

► **Zure eta ehoziri erakusketa (helduen tailerrak).** Kultur Etxean. Uztailaren 18tik 30era.

ZINEMA

URDULIZ


► **Men in Black II.** Lehendakari Agirre plazan. Uztailak 22, martitzena. 22:30.

BESTERIK

BERANGO

► **XLVII. Bakailao Txapelketa.** Elizaren inguruan. Abuztuak 10, domeka. Egun osoan zehar.
► **Nazioarteko XI. Folklore Jaialdia.** Austria, Holanda, Flandria, Katalunia eta Alemaniako taldeen parte hartzeaz. Euskal Herriko ordezkaria Berangoko Otxandategi dantza

namaika hida



taldea izango da (jaialdiaren antolatzaileak, hain zuzen). Lantzarateko zelaetan ipinitako karpan. Abuztuaren 15, 16 eta 17an.

ERANDIO

► **Emakumeen Bizkaiko Txirrindulari Txapelketa.** Irteera eta helmuga Obieta kalean. Uztailak 27, domeka. Ordua zehazteke.

GETXO

► **Nazioarteko XIX. Folklore Jaialdia.** Uztailaren 22, 23 eta 24an egingo da Algortako Biotz Alai pla-zan. Aurten Txetxenia, Kenya, Korea, India eta Sakha-Yakutiako taldeek parte hartuko dute. Getxoko Itxartu taldeka Euskal Herria ordezkatzuko du, ohi denez. uztailaren 24an dant-zatuko dute itxartutarak, Sanda, Sakha-Yakutiako taldearen ostean.

► **Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Jon Maia, Sustrai Colina eta Xabier Paia.** Algortako Kasinoan (jaiak). Uztailak 30, eguaztena. 13:00.

► **Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Amets Arzallus eta Fredi Paia.** Algortako Kasinoan (jaiak). Uztailak 31, eguena. 13:00.

► **Bertsolariak: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexux Mari irazu eta Xabier Silveira.** Algortako Kasinoan (jaiak). Abuztuak 1, barikua. 13:00.

► **Saninazio Txirrindulari Lasterketaren LVIII. edizioa.** Uztailak 31, eguena. 8:30.

► **Estropadak: Getxoko Ikurriñaren XXV. edizioa.** Abran. Uztailak 31, eguena. 17:30.

GORLIZ

► **Bizkaiko ur azpiko arrantza txapelketa.** Irteera Astondo hon-dartzatik. Uztailak 20, domeka. 9:00.

► **Raysa Hornillosen azken liburuaren aurkezpena.** Liburu-tegian. Uztailak 23, eguaztena. 20:00.



Kalamuaren eratorriak dira, legez kanpoko drogen artean, arrakastatsuenak



Saltzen den kokaina oso kalitate onekoa izaten dela esan digu Martín Barriusok



Martín Barriuso



Estasiaren kontsumoa asko zabaldu da azken urteotan

Drogak bai, arriskurik ez

Duela bost urte sortu zen Ai Laket!!, droga hartzean arriskua gutxitzea helburu daukan taldea. Euren eginkizunik garrantzitsuenetakoa jaietan laborategiak paratzea da; drogaren bat hartzeko asmoa daukanak, gura badu, bertara eroan dezake aurretik, eta analisi baten bidez droga horren kalitatea aztertuko dute Ai Laket!!-ekoek. Uribe Kostan ere behin baino gehiagotan egon dira euren furgonetagaz, eta aurten ez da salbuespena izango. Edozein droga aztertzen dute, legala zein legez kanpokoa; izan ere, Ai Laket!! kontsumo askearen aldekoa da, inongo debeku barik. Hori bai, informazio egokia edukita. Gehiago jakiteko, Martin Barriuso taldeko kideagaz egon gara berbetan.

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Doala aurretik oharra: ez dizuegu esan-go non eta noiz aurkitu ahal izango duzuen Ai Laket!!-en laborategia, eurek ere debekatuta daukate-eta iragartzea, Eusko Jaurlaritzagaz sinatutako hitzarmen baten arabera. Hurrengo orrialdeko koadroan azaltzen dira zehatzago neurri horren nondik norakoak; oraingoz, balio beza Uribe Kostako zenbait jaietako herrietan egongo direla esateak, aurreko urteetan egon diren bezala. Lasai, topatzea ez da gatxa izango. Martin Barriusok

dioskunez, erraz ikusteko moduko lekue-tan egoten dira, eta gainera kalera irteten dira, *“droga hartzen ikusten ditugune! edo gure ustez droga hartzaileak izan daitezke-nei geure berri ematera”*.

Ai Laket!!-eko bozeramaleak dioenez, Nafarroan hasi zen dena. *“Hango batzuk testak egiteko sustantziak ekartzen hasi ziren. Ekartzen eta ezagutarazten, hemen inork ez baitzekien zer zen hura”*. Apurka, testak egiteko ohitura zabalduz joan zen, erabat orokortu arte Ai Laket!! sortzean.

“Testak egiteko errektibo kimikoak erabiltzen dira, substantzia jakin bat aurkitzeko balio dutenak”, dio Barriusok. Gehi-etan, azido nahaste bat izaten da, aztertu gura den drogari botata kolore jakina hartzen duena (edo hartu beharko lukee-na, drogaren konposizioa egokia bada). Droga bakoitzak era bateko konposizioa dauka, eta hortaz, testak ere desberdinak dira. Ai Laket!!-en laborategi ibiltarietan kokainarako, LSDrako eta droga sinteti-koetarako (speed, estasiaren familikoak...)

«Barriusoren ustez, jendeak, oro har, ez ditu drogak modu onean hartzen, gehiegi nahasten dira eta»

bana dago. *“Gainera, mikroskopioa dauka-gu, haxixa eta marihuana aztertze”*.

Ohitura osasuntsuagoak zabaltzen

Testa berehala egiten da. Koloreen arabera, drogan zein sustantzia dagoen jakin daiteke, eta kasu batzuetan zein proportziotan ere, gutxi gorabehera. Hala ere, ez dago dena momentuan jakiterik, eta horregatik Ai La-ket!!-ek hitzarmena dauka EHUKo Kimika Fakultateagaz. *“Laginak bidaltzen ditugu eta egun gutxian konposaketa zehatza jakin deza-kegu”*.

Bestalde, laborategian lanean dabil-tzanek jendearen galderei erantzuten diete, drogak modu egokiagoan hartzeko ahol-

kuak ematen dituzte, kondoiak oparitzen dituzte eta materiala banatzen dute. *“Esaterako, ‘esnifatze”* tutuak ematen di-tugu, behin erabili eta botatzekoak...”. Oro har, ohitura osasuntsuagoak zabaltzen ahalegintzen dira Ai Laket!!-ekoak.

Barriusok dioskunez, *“hemen jendeak ez daki droga modu onean hartzen”*. Batez ere, *“inongo ordenik gabe”* gehiegizko na-hasketak egiten direlako gertatzen da hori. *“Nahasketa gehienak alkoholagaz egi-ten dira”*, azaldu digu, *“eta alkoholak oso konbinazio txarra sortzen du gainerako droga guztiekin”*. Ganora barik nahastea-gaz batera, autoa erabiltzea da droga hart-zaileen ohiturarik arrikutsuena. m

Kalitatea aztergai

Kalamuaren eratorriak dira, legez kan-poko drogen artean, arrakastatsuenak. *“Iaz aztertu genuenaren erdia haxixa eta marihuana izan ziren”*, dio Barriu-sok, *“eta horren barruan gehiena haxi-xa”*. Gero, laurden bat speed-a izan zen, eta beste laurdena kokaina eta estasia. Gainerakoak (mongiak, tri-piak...) %1 inguru baino ez ziren.

«Oro har, kalitate txarreko haxixa eta speeda hartzen dira»

Oro har, kalitate txarreko haxixa eta speeda hartzen direla dio Barriusok: *“Haxixak oso THC gutxi dauka, eta speedaren zati handi bat kafeina hutsa besterik ez da”*. Kokaina, aldiz, oso kalitate onekoa izaten da, *“batzuetan harritzeko modukoa”*. Ai Laket!!-en hel-buruetako bat drogakaz nahastuta egon daitezkeen sustantzia arriskut-suak topatzea da, eta horri dagokio-nez, Barriusok lasai egoteko arrazoiak daudela dio: *“Oso arraroa da zerbait kaltegarri egotea drogan. Inoiz, esta-sian, MDMA ez ezik, MDA edo MDEA aurkitu ditugu (familia bereko sustant-ziak, MDMA bera baino toxikoagoak), baina ez da arrunta izaten”*. Adultera-zioak, beraz, norberaren poltsikoaren kalterako izaten dira gehiago osasuna-ren kalterako baino.

Topa itzazu

Erreportaje honen hasieran esan dugunez, Ai Laket!!-ek debekatuta dauka aldeaz aurretik iragartzea non eta noiz ipiniko dituzten laborate-giak, Eusko Jaurlaritzagaz egindako hizarmenaren arabera. *“Euren us-tez”*, dio Martin Barriusok, *“iragarri-ko bagenu, egun horretan inguruak trafikatzailaz beteko lirateke”*. Edo-zelan, jai-gune garrantzitsuenetan edo haietatik oso hurbil paratzen dira gehienetan, eta euretako bi kaletik ibiltzen dira, laborategia ber-tan dagoela adieraziz. Publizitaterik ez egin arren, gau osoan egoten dira lanean. Bestela ere, Ai Laket!!-egaz harreman jarri gura baduzu, telefono hauetara dei dezakezu:

Ai Laket!!: 661 86 76 00/01/02

Jaietan ere beharrean



“Bero handiko edo euriko egunak dira txarrenak guretzat”

Xabier Oribek *Pitxi*. Muntatzailea Ekitaldiak aterpean egiteko

Xabier Oribek (*Pitxi* goitizenaren erabiltzailea) 23 urte beteko ditu laster, Leioakoa da, eta Asuako industrialdean dagoen enpresa batean egiten du lan, karpak eta agertokiak muntatzen; urte bi eta erdi daroaz behar gogor horretan: *“Leher eginda amaitzen dugu. Kamisetaz barik, biseraz eta eguzkitik babesteko kremaz estaltzen gara; eta galtzontzilo hutsetan egoteko gogoagaz gainera!”* aitortu digu *Pitxi*k. *“Kanpoan lan egin behar dugunez, bero handiko edo euriko egunak dira txarrenak guretzat”*.

Udaldia izan ohi da behar gehien izaten duten bolada; apirilean edo maiatzean hasten da, eta ez da bukatzen urria edo azaroa ailegatu arte: *“agian gaur karpa bat muntatu behar dugu, eta bihar, berriaz, agertoki bat”*; neguan, lanaren “zama” nahikotxo arintzen da. Tamainaren arabera dago, baina agertoki bat hiru orduan egon daiteke ipinita; *“10 x 8 edo 12 x 6 metroko neurriak izaten dira gehien eskatzen dizkigutenak”*. *Pitxi*k udako asteburu gehienetan egin behar du lan, *“baina libre ditudan egun apurrak gorputz eta arimaz gozatzen ditut”*. m



“Hamabi ordu edo gehiago egiten ditugu beharrean”

Endika López. Soinu-teknikaria Urgaberekin hemendik hara

Jai bat kontzertu barik ez litzateke deus ere izango. Eta musika behar bezala entzuteko ezinbestekoa da soinu-teknikarien beharra. Endika López berangoztarra hasiberria da zeregin horietan, duela sei hilabete hasi zen-eta Urgabe taldearen soinu-teknikariaren laguntzaile lanean. Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolan bukatu zituen ikasketak iaz, eta Sondikako enpresa batean praktikak egin ostean, berehala hasi zen lanean.

Endikak dioenez, negu-garaia lasaia izan zen, *“kontzertu askorik ez delako egoten”*; baina orain, udaldian, *“asteen kontzertu bi gutxienez eskaintzen dituzte Urgabeok”*. Ordutegi finkorik ez dauka: *“Hamabi ordu edo gehiago egiten ditugu beharrean”*. Enkarterrietan, Erandion eta Zamudion, besteak beste, egon da 21 urteko gazte hau; laster, Gorliz, Algortan, Bilbon... *“Garbi daukat lan honekin herri asko eza gutuko ditudala”*. Gustatzen zaio egiten duena: *“Labur esanda, hutsik dagoen agertokia prestatzen dut, oholtzak eta mikrofonoak ipini, eta dena kablez jos”*. Eta kontzertua bukatu eta tramankulu guztiak batu ostean, parrandara, *“denbora badago”*. m

Bidezkoa izan ala ez, bakar batzuek lan egin behar dute, beste guztiok jaietarako gozatuko baditugu. Gure inguruan badira zenbait lagun udan, asteburuetan eta jaietan beharrean dihardutenak gogotsu, zorionez edo zoritxarrez eurentzat (zorionez esan beharko genuke, lan merkatua zelan dagoen ikusita). Sasoi horietan ugaltzen zaie guztiei lanaren kopurua. Eta guztiak onartu zuten hasieratik -etsipen apur batekin- behar egingo zutela gainontzekoak parrandan daudenean. / Testuak: **Jon Urresti** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Igor Bilbao. Edari banatzailea Bako jainkoaren ordezkaria

Euskaldunok gustukoa dugu, itzelez, ospakizun guztiak janariz eta edariz bapo laguntzea; eta, zelan ez, edariek alkoholdunak izan behar dute. Hori guztia oso errotua dago gure gizartean. Edariak banatzen eta saltzen 9 urte daroazen Igor Bilbao azaldu digunez, *“udan gehien edaten diren edariak freskagarriak, garagardoa eta ura ohi dira; ardoa, berriaz, neguko edaria dela esan daiteke”*. Igorren lan-eremua, gure eskualdeari dagokiola, Sopela, Plentzia eta Gorliz dira. Dioskunez, bere lan kopurua *“bikoiztu edo hirukoiztu”* egiten da uda ailegatzenean: *“Tabernak, jatetxeak eta dendak hornitzeaz gain, hondartzetan eta jaietan dauden txosnei ere saldu behar dizkiet edariak”*.

Txosnetan edaten dugunaren zerrendatxo egin digu duela 28 urte Lezaman jaio zen gazte honek: *“Kalimotxoa, garagardoa eta konbinatuak; baina orain modan dago orujoa eta whiskia melokotoi likorearekin eskatzea”*. Dagoeneko, Igor Bilbao ohituta dago behar egitera gainerakoek oporrak dituztenean, *“hasieran horrek inbidia ematen zidan; baina denborak aurrera egin ahala, ohituz joan nintzen uda dela lan gehiago egoten den sasoi”*. m



“Kalimotxoa, garagardoa eta konbinatuak edaten dira txosnetan”

Julen Olague. Kale-garbitzailea Erratzari gogoz eragiten

Ez dauka ez, lan samurra, Algortan jaio baina Berangon bizi den Julen Olague Fullaondok: kalean uzten ditugun zikin-erriak kentzea, erratza duela lanabes; *“eta jaietan higuina eragiteko moduko txerrikeriak garbitu behar izaten ditugu: botakak, konpresak... Eta plastikozko edalontziak, zelan ez”*. Julenek dino *“eskobalaria”* dela; 1992an hasi zen Areeta, Algorta eta Getxoko kaleak garbitzen asteburuetan eta jaietarako, baina 96az geroztik Berangoko kaleez arduratzen da.

Goizeko bostetan altxatu eta kale gorrian lan egin behar, euria edo beroa egin, *“ez da osasunerako pagotxa; azkenean, erreta eta izorratuta bukatzen duzu”*. Hala ere, 39 urteko gizon hau harro dago lanarekin: *“Zelan ez naiz ba horrela sentituko? Nire beharrakaz nahiko ondo bizi da familia, hipoteka ordaindu dugu eta hozkailua beteta dago”*. Julen Olague lanean hasten denean (goizeko 6etan), ‘gaupaseroak’ oraindik kaleetan dabilta erretiratu ezinik; *“ordu horietan jaiguneez infernua dirudite”*, azaldu digu Julenek, *“eta erdi lotan neure buruari esaten diot: ‘Hau Vietnam da’”*. Ba ez dabil oso urrutia. m (Argazkian, Julen Olague ezkerrekoa da)




“Jaietan higuina eragiteko moduko txerrikeriak garbitzen ditugu”



30 UK NABUSIMAKE, SIERRA NEVADA (KOLONBIA)



BARACOA, KUBA



ENRIQUILLO LAKUA, DOMINIKAR ERREPUBLIKA

Jorje **Perez**



Jorje Perez (Algorta, 1967) diseinatzaile grafikoa da ogibidez. Egin dituen lanak ondo ezagunak dira; izan ere, Euskal Herriko hainbat gizarte mugimendu eta euskarari lotutako elkarterekin egin du lan. Teknologia hutsa gailen den garai honetan, berak nahiago du munduari aurrez aurre begiratu. Utzi digun argazki sorta eder hau azken urteotan Ameriketara zehar harrapatu dituen irudiek osatzen dute: hemen urri baina han ugari den bizigogo eta poza gurera dakartzate irudiok.



CHIHUAHUA, MEXIKO



JARABACOA, DOMINIKAR ERREPUBLIKA



EL CARMEN, CHINCHA (PERU)



DUARTE GAINA, DOMINIKAR ERREPUBLIKA



SAQUISILI MERKATUA, EKUADOR



CHICHICASTENANGO MERKATUA, GUATEMALA



ATITLAN LAKUA, GUATEMALA



VILLARRICA, TXILE



CONDEGA, ESTELI (NIKARAGUA)

zineeskola

Oskar Fernández

Hollywood gezurretako lantegia (II)

Aurreko artikulutxoan esan genuen moduan, Edisonek, Lumière anaiek egindako filmekin eta proiektatzeko erarekin lortu zuten arrakasta ikusirik, kinetoskopia alde batera utzi eta haien bidea jorratzea erabaki zuen. Horretarako, Edisonek mesede egingo zion jarrera bat sorrarazi zuen jendearen artean: “Amerika amerikarentzat” izan behar zuela aldarrikatzearena. Ikuspegi horretatik, atzeritarrak soberan zeuden. Félix Mesguich, Lumière anaiek bidalitako operadorea, izan zen lehena erortzen. Edisonek 1897 urtean aurkeztu zuen lehenengo auzi-eskea, patenteak ez errespetatzea leporatzeko. Urte honetatik eta 1906 bitarteko epean bostehun epaiketa-prozesu eraman zituen aurrera. George Eastman enpresa-gizonak zeluloide zulatua ekoizten zuen, eta Edison pelikula berari baino ez saltzen saiatu zen, baina ahalegina baino urrunago ez zen iritsi, Eastmanek ez zuen nahi-eta, bere ekoizpena haunditu baino. Edisonen interesak babesteko, poliziak bidali zituzten music-hallak eta errodaje egoitzak ixtera, eta grabatzeko aparatuak eta pelikulak konfiskatzera. Zinemagintzarekin lotura zeukaten guztiak (zuzendariak, antzezleak, teknikariak, ekoizleak,...), Edisonek jarritako arauekin bat ez bazetozen, jazarpen izugarria jasan behar izan zuten. Zinemagintzaren hainbat eta hainbat aitzindarik ikusi behar izan zituen poliziak bere negozioak arpilatzen eta lantresnak konfiskatzen. Egoera honetan haietariko asko eta asko miseria gorrian murgildurik gelditu ziren. Baina, komeni zitaionetan itunak ere egin zituen Edisonek. Era honetan, egun batetik bestera monopolio eskerga altxatu zuen eta Ameriketako zinemagintzaren diktadore bihurtu zen. Monopoliotik kanpo independenteak zeuden: hauek eraiki zituzten Hollywood “ametsetako lantegi”-aren oinarri sendoak, baina gai hau beste egun baterako utziko dugu. 4

Irudien soinua


Fernando Velázquez algortarra film labur askoren **soinu-bandaren egilea** da

Duela 26 urte Algortan jaio tako Fernando Velázquez Madril, Getxo eta Parisen artean bizi da, lan kontuak direla-eta. Txelo irakaslea izateaz gain, Algortako Hirutasunean organoa jo zuen, Euskadiko Gazte Orkestran hiru urtez egon zen, eta Madrilgo Sinfonikoan bekadun ibili zen. Musikagile lanaren inguruan galdetu diogunean, Fer-

«Getxoko Kultur Etxeak Velázquezzen musika bilduko du CD batean»

nandok zera erantzun digu: *“Nik ez daukat berezko estilorik, oraindik. Lau huskeria dakizkit eta dakidan apurnari etekin handia ateratzen diot”*.

Koldo Serra zuzendari getxoztarrak eskatu zion lehen lan serioa: *Háchame!* film laburraren soinu-banda idaztea; harrezkeroztik Serraren *Amor de madre* eta *El tren de la bruja* lanetan ere parte hartu du. Fernando Velázquezek film laburrentzako egin ditu gehienbat soinu-bandak (*El trabajo*, *Torre*, *Loops*, *Hauspo* soinua, eta *Amor*, *dinero y salud por este orden*); baita sariak lortu ere, *El hombre esponja* eta *Historia de un búho* filmei esker, iaz Alcalá de Henares-eko Zinemaldian eta Eltxekoan, hurrenez hurren, irabazitakoak. Oraingoz, film luze bakar batentzako idatzi du musika: estreinatu barik



Fernando Velázquez, soinu-banden egilea

dagoen *Agujeros en el cielo*.

Fernando Veláquezentzat, *“soinu-banda bat sortzea eta grabatzea, zineman egiten den lanik atseginena da: amaitutako lan bati ginga ipintzea dagokit; horregatik, zorionekoa naizela uste dut”*.

Getxoko Kultur Etxeari proposatu dio CD bat argitaratzea berak egindako musikaren aukeraketa batekin; *“espero dut udazkenarako prest egotea, banatzen has dadin eta zinemaldietan mugi dadin”*, azaldu digu Velázquezek. m

Erradiografia > R 13



Argazkian, taldeko kideak

Nondik datorren izena: Talde hau Room13 izatetik R13 izatera igaro da *“abeslaria sartu zenean izena aldatu genuen eta taldea sortu zen”*. **Noiz hasi ziren:** Talde berri samarra da R13, oraingo taldekideek lau hilabete baino ez daramatzate elkarrekin *“hala ere orain dela urte bat hasi ginen konposaketa lana egiten, prozesu bat igaro izan behar dugu”*. **Taldeko kideak:** Onintza (abeslaria), Andoni (bateria eta ahotsa), Arkaitz (gitarra) eta Osoitz (baxua). **Gustukoa dute:** *“Musika egiteko orduan gustuko dugu ondo pasatzea, baina bestalde bakoitzak bere iritzi musikala dauka eta azkenean adostasuna*

bilatu behar dugu zerbait ateratzeko”. **Eginiko diskoak:** Oraindik ez dute ezer grabatu *“noizbait zerbait grabatu beharko dugu baina eguna noiz helduko den ez dakigu”*. **Besteak beste, jo dute:** Uda jaien garaia dela-eta R13k bere lehen kontzertuak emango ditu *“Algortako jaietan kontzertua emango dugu eta sekulako ilusioagaz gaude. Bira egingo dugu udan Konter taldearekin”*. **Euskal musikaren egoera:** *“Denetarik dago, musika komertziala, ez-komertziala... Euskal Herriari begina eta uda sasoiak kontuan hartuta azkenean beti talde berek jotzen dute”*. m **645 708 517 (Andoni)**

diskoak

Say you will
Fleetwood Mac
Warner Music



Arrakasten bildumak eta zuzeneko lanak albo batera utzita, *Say you will* izeneko diskoa Fleetwood Mac talde betearnoak kaleratzen duen lehenengo da 1987az geroztik. Christine McVie salbuespen, taldekide guztiak elkartu ziren abesti berriak (18 guztira) idatzeko: Mick Fleetwood, John McVie, Lindsey Buckingham eta Stevie Nicks.

Home
Simply Red
Blanco y Negro



Mick Hucknall ilegorria buru daukan taldeak 18 urte bete eta mundu osoan 45 milioi disko saldu ditu. Hiru urtez lan berriak kaleratu barik egon ostean, orain zortzigarrena dakarkigu Simply Red-ek, 11 abestik osatua. Izenburuak ondo adierazten duen bezala, denak Hucknall-en etxean idatzi, grabatu eta ekoiztu ziren.

Diamonds on the inside
Ben Harper
Virgin



Kaliforniako abeslari eta gitarra-jolearen bosgarren diskoak zenbait gauza biltzen ditu: hitz espiritualak eta barru-barruko giroa; blues, rock, folk, soul eta reggae estiloak; eta Innocent Criminals taldearen parte-hartze garrantzitsua. Musikari bakarzale honek zintzotasunez betekiriko 14 kanta egin ditu.

Musika >

Junkera Gorlizen



Uztailaren 30ean, 22:30ean, Kepa Junkera trikitilariaren kontzertua egongo da Gorlizen, Iberrebarrin hain zuzen. Junkerak ibilbide luzea egin du musikan: hamar disko kaleratu ditu, eta trikitixa tradizionaletik abiatuta, estilo berezia garatu du.

Uztailak 30, eguaztena, 22:30 Iberrebarrin (Gorliz)

Zuzenean >

Satistegi plazako kontzertuak

Udan zehar, eta eguaztenero, kaleko kontzertuez goatzeko aukera egongo da Algortako Satistegi plazan. The Pipers Irish Club eta Satistegi tabernek antolatu dute ekimena, hirugarren urtez dagoeneko, eta horrenbestez, uztaila, abuztua eta, *“eguraldiak laguntzen badu”*, irailean, jazz eta blues kontzertuak eskainiko dituzte arratsaldeko 8:30etatik aurrera. Satistegi tabernako Alatz Bilbaok dioskunez, *“musika lasaia bilatzen dugu”*. Joko duten taldeak erabakitzeke daude oraindik, kontzertuak antolatu ahala egiten dituzte-eta kontratazioak.

Udako eguaztenetan, 20:30etan Satistegi plazan (Algorta)

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (III) Bizitza pusketak

1997ko otsaila. Eroen pare ibili ginen negua. Arratsaldero, gaztaina erreak ekartzen zenituen etxera, eta, sofan etzanda, telebistaren aurrean jaten genituen elkarrekin. Egunkariren bati lapurturiko orrietan bildurik egoten ziren gaztainak, eta, noiz edo noiz, bertan izkiriaturik zeuden albiste zatiak osatzera jolastu genuen. Ez dakit nola, baina beti ateratzen zinen garaile. Agian ni baino irudimen handiagoa zenuelako. Agian mundua nik baino hobeto ezagutzen zenuelako. Baina berehala aspertzen ginen jolasarekin; triste-egiak izaten ziren orri haiek zekartzaten zituzten berri pusketak, eta ez genuen gure gaztainak haien antzera mingosterik nahi.

Behin, neguko bisita horietako batean, gaztainak pratetako poltsikoetan sartu eta liburu bat ekarri zenuen egunkari orrien orde. Vasarik idatzitako *Vitae*. Egunero pare bat biografia irakurtzen genituen, ozen. Eta bitxia iruditzen zitzaigun garai hartako pentsamoldea, gizartearentzat artisau sinplea zena nola benetako jenio bihurtu zen XVI. mendean. Bat-batean jende guztiak ezagutu gura zituen artista haien bizitzak, artea egitera bultzatu zituzten arrazoiak. Eta askotan, benetako bizitzei aspergarriegi iritzita, biografia haietan pasarte mitikoak tartekatzen zituzten, antzinako Grezian egin zuten bezala.

Irakurtzen genuena egia izan ala ez, ez zitzaigun gehiegi axola. Gustura jarraitzen genituen Vasarik finkaturiko ildoak, eta, zergatik ukatu? Batzuetan inbidia sentitzen genuen bizitza haiek geureak baino beteagoak izan ziren ustean.

Urteak aurrera joan ziren, urtaroro batek besteari hartu zion lekukoa. Vasariren liburukotea etxeko apalategi batean geratu zen, eta hortxe jarraitzen du, hautsa pilatzen. Pixkanaka-pixkanaka bakantzen joan ziren arratsalderoko bisitak, eta, haiekin batera gaztainak. Aurten, otsailean, Italiara joango naiz *vitae* haien arrastoaren atzetik. Horretan ere, zeuk aurrea hartu didazun itxaropenarekin. 4

Maitasunaren erokeriak

Laura Mintegik 2001ean idatzi zuen *Sisifo maite minez* liburuaren itzulpena egin du

Denok maitemindu gara noizbait. Beraz, badakigu maitasunak erotu egiten gaituela. Maitemintzeak muturreko egoeretara eramaten gaitu: balentriarik handiena eta zitalkeriarik miserableena egin ditzakegu maiteminarean aitzakiaz.

Alde batetik, pasioa, desira eta itxaropena; eta bestetik, gabezia, hutsunea eta etsimena. Hori guztia zer den ederki daki Anek, Mikel ezagutu zuenetik bere bizitza hankaz gora ipini du-eta. Anek familia utzi, alde egin eta urte batzuren ostean itzuli da etxera; eta itzulera horretan kokatzen gaitu Laura Mintegi idazleak *Sisifo maite minez* izenburuko liburuan.

«Elisa Félix Butrón-en laguntzarekin itzuli du Mintegik bere liburua»

Euskaraz idatzitako liburu hori Txalaparta argitaletxeak kaleratu zuen 2001ean, baina orain Mintegik berak eta Elisa Félix Butrón-ek egin duten gaztelaniazko itzulpena irakur dezakegu dagoeneko.

1955ean Lizarran jaio zen arren, Venezuelan eta Bilbon bizi izan da Laura Mintegi, eta 1973az geroztik, Algortan bizi da. 17 urte zituela ikasi zuen euskara. His-



Algortan bizi den Laura Mintegi idazlea

toria lizentziatura Deustuko Unibertsitatean eta Psikologia doktoretza EHUn egin ditu, baita hainbat aldizkari, egunkari eta irratitan kolaboratu ere. *Ilusioaren ordaina* izenburuko kontakizun laburrak argitaratu zituen 1983an, eta ordudanik *Bai... baina ez* (1986), *Legez kanpo* (1991), *Nerea eta biok* (1994) eta *Sisifo maite minez* eleberriak idatzi ditu. Bi saiakera lanen egilea izateaz gain, Laura Mintegik Donostiako Hiria ipuin lehiaketa, eta Azkue eta Jon Mirande nobela sariak eskuratu ditu, besteak beste. m

Sisifo enamorado. Laura Mintegi
Txalaparta argitaletxea. 160 orrialde. Gaztelaniaz

liburuak



Barrikadak
Patxi Zubizarreta
Alberdania

Bost pertsonaia, bost kontakizun eta bost ikuspuntu, egoeraz hobeto jabetzeko: azken batean bost bagoi, liburu hau den tren espresari ondo lotuak. Norabidea argia da: irakurlearen lilura piztea. Antton Olariagaren irudiekin.



Haydn-en loroa
Felipe Juaristi
Aizkorri

Udako goiz lasai batean, olatu handiek hamaika ustekabe gordetzen dituen *Stella Maris* itsasontzi zaharra ekarri dute Zarauzko hondartzara. Eleberri honek “Leer es vivir 6. Gazte Literatura Saria” irabazi du.

DVD >

Euskarri digitalaren gorakada ikusgarria

DVDak **kalitate handiko formatua** ezarri du lehen aldiz etxeko bideoetan

1980ko abesti ezagun batek “*Bideoak irratia*ren izarra hil zuen” zioen; egun, ordea, The Buggles bikotearen kanta hori zaharkitua geratu da, eta norbaitek beste bertsio bat egin beharko luke. 1996. urteko amaieran DVD (gaztelaniaz *Disco Versátil Digital*) teknologia sortu zen VHS euskarria desagertarazteko asmoarekin; dagoeneko zinemazale askok bideoaren azken formatu horretako filmak oparitzen dituzte, VHS zaharraren orde.

DVDaren zabalkuntza azkarra txunditzeko modukoa izan da: Estatu Batuetako eta Japoniako merkatuetara ailegatzen hasi zenetik sei urte bakarrik igaro direnean, euskarri digital hori indar handiz sartu da mundu osoko etxeetan. DVDaren geldiezinezko booma 2000 eta 2001eko Gabonetan gertatu zen. Harrezkeroztik, prezioak nabarmen jaitsi dira: 20.000 eta 45.000 pezeta bitartean dabiltza gaur DVD erreproduzitzaileak; grabatzaileak, oster, ondo garesti dira, eskaintza oraindik oso urria denez gero.



Kalitate digitaleko pelikula bat gordetzen duen diskoak (hori da-eta azken batean DVD euskarria) CD itxura dauka, eta irudian zein soinuan goi-fidelitatea eskaintzen du, baita informazio ugaria ere (aktoreen eta zuzendarien gainekoa, zelan egin zen eta abar); horrez gain, filma jatorrizko bertsioan edo hainbat hizkuntzatan entzuteko aukera ematen digu. Bizitza luzearena ere beste ezaugarri bat da: VHS zintek 15 edo 20 urteren buruan seinalea galtzen dute; DVD diskoek, berriz, betiko daramate informazioa. m

Entzun >

Pompas de Papel

1987ko azaroaren 17an jaioetako irratsaio honen arduradunen ustez (Félix Linares eta Enrique Martín), irakurtzea festa eta plazerra da. Azalpenak eta gomendioak behintzat, zaletu gisa egiten dituzte, eta ez kritikari gisa. Irakurketak, elkarrizketak, aipamenak, lehiaketak eta *La Bodega*lla literatur-berriketaldi goraipatua entzun daitezke orain oporretan dagoen programan. *Pompas de Papel* irailaren 21ean itzuliko da Radio Euskadira, gaueko 12etatik goizaldeko ordubatera, domekatik astelehenera bitartean.

Irakurri > The Balde



Duela urte eta erdi jaio zen, Iruñean, *The Balde* bihilabetekaria. Gaur egun, Nafarroako hiriburuan eta Donostian egiten da Euskal Herri osoan zabaltzen den *The Balde*. Martin Etxauri (aldizkariko zazpi diseinatzaileetako bat) talde eragileko kideak dioskunez, “Europan mota jakin bateko aldizkariak sortzen zebiltzan, eta guk ere horrelako zerbait sortu nahi genuen Euskal Herrirako”. Alegia, kultur arlo desberdinak diseinu berritzaileen bidez lantzen dituen argitalpena. *The Balde* (hau da daukan bitxikerietako bat) elebiduna da: testu guztiak euskaraz eta ingelesez datoz. Eta dohainik da, jakina.

Harremanetarako: 948 12 19 76

uhinakFM

Getxo Irratia		87.6
Koska Irratia		89.8
Radio Euskadi		92.4
Euskadi Gaztea		94.7
Bilbo Hiria Irratia		96.0
Tas-Tas Irratia		97.0
eitb irratia		100.1
Bizkaia Irratia		102.6
Euskadi Irratia		104.4
Pititako Irratia		107.0

Gure espezieak >

Aingira



- **Izen generikoa:** *Anguilla anguilla*
- **Izen arrunta:** Aingira
- **Berezitasunak:** 150 cm-ko luzera
- **Bizilekua:** Ibaiak eta itsasoa

Suge itxura duen arraina da. Itxura ezberdina azaltzen du garapen mailaren arabera: ibaietan dabilen bitartean gris ilun kolorekoa da, lepoa berdeagoa du, eta sabela zilar kolorekoa; ugalketa zikloa bukatzera itsasora doanean, aldiz, kolore ilunagoa hartzen du. Begiak ere handitzen zaizkio orduan. Arrainkume garaian txitxardin izenaz ezagutzen dugu.

«Uribe Kostan edozein arro eta hezegunetan aurki daiteke»

Katadroma espeziekoa dugu, eta itsaso eta ibaien artean bizi da. Ibaietan, bokaletik hurbil eta behe arroetan ibiltzen da; itsasoan, berriz, 400 metrotik 1.000 metrorako sakontasunean, 15 bat graduko tenperatura eta %36ko gazitasuna duten uretan ibiltzen da.

Uribe Kostan edozein arro eta hezegunetan aurki daiteke; baita sakontasun gutxiko arro estuetan (Kandelu eta Boluen esate baterako), urmael bakar-tuetan eta abarretan ere.

Arrainetan aurkitzen den bizitza ziklo berezi eta konplexuenetarikoa erakusten du aingirak. Arrek 6-8 urte eta emeek 10-12 urte dituztenean, itxura aldatzen dute itsas bizitzarako, eta errekan behe-ra jotzen dute. Hori urria aldera gertatzen da, eta 6 hilabete eta urte bat bitartean behar dute arrautzak errungo dituzten lekuetara heltzeko. Helduak ez dira berriro itzuliko, baina larbak ibaieta-ra abiatzen dira korronteen laguntzaz. Jatun handia da: ornogabeak, apaburuak, arrain txikiak, igelak edota landare nahiz animalia hondarrak jan ditzake. Ibaietan dabilenean, egunez, ostendu egiten da hondo lohitsueta.

Gaia > galipota

Olioia galipota garbitzeko

Oliba olioagaz **igurztea** da gorputzeko **galipot** orbanak kentzeko modurik egokiena

Zelan garbitu galipota? Horra hor modako itaun bat. Prestige-ren honda-mendiak ez du eragotzi Uribe Kostako hondartzak, uda guztietan bezala, jendez gainezka egotea. Orain, baina, behin baino gehiagotan fuel orbanak itsatsita geratzen zaizkie hondartzazaleei, eta horiek kendu egin behar dira.

Hainbat modu gomendatu da galipota garbitzeko. Horietako bat, lehenbizi olioagaz edo eguzkirako ukenduaz igurztea (paper bat erabilita) eta ondoren uraz eta xaboiak garbitzea. Farmazilari Elkar-goien Kontseilu Orokorrak bere garaian Galizian kostaldeko galipota kentzen zebiltzanei esan zenez, oliba olioagaz igurztea da azalaren gaineko orbanak desagertarazteko modurik egokiena. Inola ere ez da erabili behar agoarrasa edo antzerako disolbatzailerik.

Egokiena, ez zikintzea

Eusko Jaurilaritzak ekainaren 15ean bainu-sasoia irekitzea erabaki bazuen ere, hainbat aholku eman zuen hondartzara joan gura zutenentzat. Alde batetik,

oinutsik ez egotea gomendatu zuten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako agintariek; bestetik, harkaitzak dauden inguruetan ez ibiltzea. Umeek arreta berezia merezi dute, galipota ahora edo begietara sar dezakete eta. Aholkuak aholku, hondartzatik irtenda orbanak dauzkazula ikusiz gero, badakizu: beste hainbat gatzatarako bezala, hoberena, oliba olioia. m



«Hondartzan oinutsik ez egotea eta harkaitzak dauden inguruetan ez ibiltzea gomendatzen du Eusko Jaurilaritzak»



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa

D E I T U !

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Txangoa > Londres

Thames ibaiaren alboan



Thames ibaiaren ertzetan hainbat eraikin ikusgarri goza dezake bidaariak

Testua eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**

Hiri hau herri askoren bizileku izan da aspalditik: zeltak, erromatarrak, angloak, sajoiak, normandiarak eta askoz ere gehiago. Herri hauek guztiek arrastoa utzi dute hirian, eta horrela, hiri kosmopolita hau kultura ugariaren bilgune bihurtu da, mila jatorriko milaka lagun bizi leku. Zortzi milioi inguru bizilagun du gaur egun, eta zalanza barik, Europako hiribururik handiena da. Thames ibaiak zeharkatzen du Londres, eta haren ertzetan hainbat monumentu eder ikus daiteke; esaterako: Londresko Dorrea, San Pablo katedrala, Buckingham jauregia edo Londresko zu-

bia. Jakina, askoz ere harribitxi gehiago topa daiteke han. Hala ere, hiri honen egiazko xarma kale giroa da, giro erabat mestizoa eta bizia. m

«Hiri honen egiazko xarma kale giroa da, giro erabat mestizoa eta bizia»

Zelan heldu hara

- Modurik onena hegazkinez joatea da: eroso eta azkarra. Gainera sarritan garraio biderik merkeena da. Loiuko aire-portutik hegaldiak ateratzen dira egunero.



Mendi kirolak >

Mendi ibilketa

Mendirako zaletasun handia dago Euskal Herrian. Horren lekuko dira aspalditik bertoko mendi-talde ugariak antolatzen dituzten martxa edo ibilketak. Horietan mendigoizale asko biltzen dira, helburu bakarra naturaz, paisajeaz edota mendian ibiltzeak sortzen duen sentsazioaz gozatzea dutela, lehia izaera alde batera utzita.

Baina kirol gehienetan legez, mendi ibilketetan ere garapen bat gertatu da azken urteotan, nolabait esateko, erronka berriak bilatzen dituzten kirolariek eragindakoa. Honela, ibilaldi luzeagoak, gogorragoak edota korrikan egitekoak agertu zaizkigu: gaur egun martxak, iraupen handiko martxak eta mendi lasterketak aurki ditza-kegu. Martxa edo ibilketek, gehienetan, ez dute lehiaketa izaerarik, arintasuna baino gehiago erregulartasuna neurtzen da-eta. Iraupen handikoak aurrekoen modukoak dira, baina gutxienez 8 orduko iraupena izan behar dute. Azkenik, mendi lasterketak ditugu: nahiz eta zenbait proba ibilketa arruntekin batera jokatu, berezko izaera dute eta bertan lehia da nagusi.

«Mendi ibilketetan erronka berriak bilatzen dituzte kirolariek gaur egun»

Azken multzo horen barruan, mendi maratoiak ditugu. Maratoi arruntentz berari, topografiaren zailtasuna gehitzen zaie proba hauetan; bermatuta dago, beraz, gogortasuna. Hala ere, kirolari askoren ustez, aldapa gora eta beheara aritzeak, bidetxo batetik eta bestetik ibiltzeak eta abarrek, kilometro mordo horiei psikologikoki hobeto aurre egiten laguntzen dute.

Hurrengo hilabeteetan jokatu diren ibilaldi eta lasterketen berri izan gura duenak, Euskal Mendizale Federazioaren web horrian eskura dezake informazioa: www.mendikoweb.com



Gogoa>
Kanabisa

Nagore Etxebarri psikologoa

Drogak erabiltzeko orduan, gauzak jakitea oso garrantzitsua denez, ikus ditzagun gure “maritxu” edo “txokolate”-ak eduki ditzakeen ondorio psikologikoak:

Kanabis landareak THC izeneko sustantzia kimikoa du, eta horrek ematen dio psikoaktiboa izateko gaitasuna. Landare honen eratorri erabilienak marihuana eta haxixa dira, erreta kontsumitzen direnen artean, behintzat. Mariaren eraginak erre bezain laster nabari daitezke; puntu gorena, handik eta ordu erdira iristen dute, eta hiru bat orduz iraun dezakete. Eraginon artean honako hauek aipa ditzakegu: euforia, barne-herstura, denboraren mantasotasuna (5 minutuk ordu bat dirudite), zentzumenen narriadura, uzkurmen soziala, begi gorritasuna, gosea... Tolerantziarik ez dagoenean, berriz, barre desegokia, herstura erasoak edo takikardiak ere ager daitezke.

Droga hau sarri erabiliaz tolerantzia gara daiteke: horrela, zenbait ondorio desatsegin desagertu egiten dira, eta horrek neurri gabeko kontsumora edo menpekotasunera eraman dezake norbera. Jendeari asko kostatzen zaio hori onartzea, ez da-eta epe laburrean gertatzen. Neurri gabe erabiltzen duen jendeak, gehienetan, ez ditu dosi handiagoak hartzen, baina bai sarriago, eta ondorioz, eguneroko zenbait jarduera arriskutsu bilaka daitezke, koordinazio ezagatik (autoak gidatzea adibidez.)

Neurri gabeko erabilerak edo menpekotasunak dakartzaten ondorioetako batzuk letargia, anhedonia, arreta falta eta oroimen arazoak dira. Hori guztia kontuan harturik, norberak erabaki beharko du sustantzia hauek nola erabili egokien deritzon eran. 4

Gorputza > sexu-harreman ziurrak
Jakin behar dena

Marino Perales emagina

Sexu-harremanen bidez hainbat gaixotasun har daiteke, batzuk desatseginak baina ondoriorik gabekoak eta beste batzuk sintomarik gabekoak baina beldurgarriak (HIESa, esaterako). Gaixotasunok alu, uzki edota aho bidezko sexu-jardueraz igarotzen dira pertsona batetik bestera. Bi modutara gerta daiteke hori: mukosa kutsatuak ondo dagoen mukosa ikututa, edo kutsatutako isurkin batek zauri txikiak ikututa.

Gaixotasun batzuk sintomarik gabekoak direnez, eta gaixoak berak gaixoa denik ere ez dakienez, babes neurriak era-



«Babes neurri egoki bakarrak sexu-harremanik ez edukitea eta kondoia erabiltzea dira»

bili behar dira sexu-harremanak edukiteko orduan, norberaren osasun egoera edota kidearena zein den jakin ezean. Babes neurri egoki bakarrak sexu-harremanik ez edukitea eta kondoia erabiltzea dira. Kondoia sexu-harremanak edukiten uzten duen baina mukosen arteko ikutze zuzena eragozten duen hesia da; eraginkorra izan dadin, zakila aluan edo ipurtzuloan sartu aurretik ipini behar da, eta sexu-jokuek irauten duten bezain luze eduki behar da jarrita. Zakila tente dagoela ipini behar da, eta kontuz ibili behar da muturrean aire-burbuilarik ager ez dadin.

Harremanaren ostean zakila ateratzean, kondoia ondo oratu behar da, aluaren barruan gera ez dadin. Hor geratzen bada, edo apurtzen bada, zakila eta alua ondo garbitu, eta hala ere emakumea haurdun gera daitekeela hartu beti kontuan. Hori eragozteko, medikuarengana jo behar da hark hormona bidezko tratamendua agindu dezan. Lehen 72 orduen barruan hasten bada, tratamendu hori oso eraginkorra da haurdunaldia eragozteko. m



Iruditan zein koloretan, toallen eskaintza oso handia da

Toallak
Etzunda egoteko

Eskuoihalen gainean **jakin beharrekoa:** materialak, neurriak, joerak eta bitxikeriak

Aurreko UKko zenbakietan bainujantziez, abarketez eta eguzkitako betaurrekoek jardun dugu; oraingoan, hondartzara edo mendira goazenean bizkar-zorroan sartu behar den beste osagaia erabiliko dugu berbagai: toalla edo eskuoihala, harearen edo belarraren gainean goxo-goxo etzunda egoteko.

«Toalla argiak ilunak baino freskoagoak dira»

Toalla gehienak felpazkoak dira, edo kotoizko kizkurak dituzte. Batzuek besteko neurriak 70 x 140 zentimetro dira umeentzat; eta 90 x 160 edo 100 x 180koak, berriz, helduentzat. Garai bateko toallak lodiak izaten ziren eta lihazkidunak; orain, ordea, meheagoak erabiltzen dira, eta inguruan oihalezko zerrenda daramate josita. Koloreei dagokienez, argiak ilunak baino fresko-

agoak dira (ilunek bero ematen ei dute). Hala ere, mutilek nahiago dituzte toalla ilunak; neskek, oster, euren bainujantziarekin edo bikiniarekin bat datorrena, eta beltzaran-kolorea nabarmentzen duena aukeratzen dute. Bestalde, hori koloreko eskuoihalak ez dira jendearen gustukoak, eltxoak erakartzen dituztelako, antza.

Toalletan tankera guztietako irudiak ikus ditzakegu; zerrenda amaiezina da benetan: kirol-joerakoak, propagandazkoak, kutsu politikokoak, markazkoak... Umeentzako zapietan, esaterako, Disney-ren marrazkiak eta modan dagoen pertsonaiaren bat agertzen dira.

Gorputza lehortzeko balio duena erabili dezakegu, eta pareo bat toallaren ordezko ona izan daiteke hondartzan; badira sakeladunak eta poltsa bihurtzen direnak ere... Euskoialen mundua oso zabala da, uste baino zabalagoa. m

I
I aki
Bitxitegia

Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345
Algorta



Basagoiti, 55 behea
T: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA

eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA


zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
deitu: 94 491 13 37

OSAEIDE?HORTZ?KLINIKA
Arantza Etxebarria
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI
Bidebarri 27, behea esALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga
HORTZ?KLINIKA
Tel.& Faxes: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezberra
ALGORTA

Gonzalo Iribarnegaray
idazle eta bidaiari getxoztarraren eskutik

“Un mes en Bostwana”



Eskatu zure liburudendan!

BILBO MICRO



“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

[sarean]

Azkar azkar

Euskaraz elkarlanean egindako lehen **web-entziklopedia** abian dago

Wiki-wiki “azkar-azkar” da Hawai-ko hizkuntzan. Baina Interneten beste esanahi bat du: talde handi batek mantentzen duen webgunea. Teknologia honen bidez, webgunearen edozein bisitarik web-orrialdean gauzak gehitu edo aldatu ditzake. Ondo, baina burura berehala datorkigu: “Eta baten batek dena borratzen baldin badu?”. *No problem*, webgunearen erabiltzaileek berriro ere kopiatuko dute lehen zegoena. Hortaz, gunea elkarlanean eraikitzen da, askoren ekarriak batuz.

Teknologia hau erabiliz, jaio zen duela zenbait urte Wikipedia (www.wikipedia.com), helburutzat munduko entziklopediarik zabalena batzea zuela. Ber-



eu.wikipedia.com

tatik beste zenbait entziklopedia txikiago sortu dira. Horietako bat, euskarazkoa, duela aste batzuk jarri da abian: eu.wikipedia.com. Edonork gehi ditzake artikulua. Ausartuko zara? ^m

webgida

JAIK 2003

> www.jaiak.net

Eguzkia izatea ez dago ziurtatzerik gure hondartzetan. Galipota, zoritxarrez, bai. Orduan... zer egin dezakegu uda honetan? Jaietara joan, noski! Edozein aitzakiak balio du gure herrietako jaietara hurbiltzeko. Webgune honetan jai guztiak batu dituzte, agenda ondo baino hobeto presta dezagun. Noiz, non, zer egin, zer ikusi, non lo egin... merezi du bisitatzea.

BIZKAIKO MAPAK

> www.anonymizer.com

Bizkaiko Foru Aldundiak musutruk eskaintzen ditu bere webgunean gure herrialdeko mapa eder batzuk. Ordenadorean gordetzeko egin behar den gauza bakarra zera da: www.bizkaia.net-en sartu, goi-

Sarean aurkitu dugu >
Zinemetan ikusgai



Internet-en irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hamabostero argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net

Euskaldunagoa?
Oso zaila dago.

Independenteagoa?
Ez da erraza.

Pluralagoa?
Zein bezain plurala?

Hobea?
Hoberena zen.

baina
hobetuko
dugu
zure laguntzarekin

berria berri

Akzioei buruzko informazioa:

www.ektsa.net

Tf: 635 733 385 · 635 733 386

ALBE alerik ale

Kalitatearen bermeaz

Aitzol de Kastro > Gutxi eman dezaketen mailan

Testua: Josu Arroyo / Argazkia: Asier Mentxaka

Badaki mutil honek bertsoei bere ukitu berezia ematen, sendotasuna eta sakontasuna uztartuz, entzuleari gozaraziz. Oholtzaren bestaldean ere, saioaren gidari, seguru ibiltzen da, lasai-lasai, onenen pare!

—Zein izan da Aitzolen bilakaera eskolan?
—ALBEn orain hamar urte hasi nintzen. Ordutik Uribe Kostan egin diren txapelketa guztietan hartu dut parte eta, egia esan, alde handia dago hasieratik hona. Bertsolari eskola bera asko sendotu da eta nik ere egin dut nire bertsokeran aurrera. Hasieran bertsoa bukatzea nuen helburu, baina gaur egun, gutxi bada ere, bertsoa bukatzeaz gain zerbait esatea lortzen dudala uste dut.

—Zein hutsune duzu oraindik betetze-ko?
—Ausardia apur bat gehiago izan behar-ko nuke bertsotarako, erantzuteko azkartasun puntu bat eta edonoiz edonon kantatzeko lotsa galtzea. Batzuetan kostatu egiten zaizkigu bertsoak, baina behin hasiz gero gustura ibiltzen naiz. Beraz, badago zer hobetu.

—Eskolatik kanpo, ba al dago bertsoa lantzeko astirik?
—Etxean kantatzeko zaletasun handia dugu, bai bertso zaharrak eta bai kantak, orokorrean. Gurean edozein bazkari aitzakia ona da kantatzen hasteko. Bakarrik nagoenean ere asko kantatzen



“Azken urteotan eskola asko sendotu da eta nik ere egin dut nire bertsokeran aurrera”

dut, baina bat-bateko bertsoak, oso gutxitan. Bat-batean ibiltzeko bertsolari giroa behar dut. Gabonetan eta urtebetetzeren batean asko kostata botatzen dut bertsoak, eta noizik behin idatzi ere idatzi ditut bertsoak, baina ez gehiegi.

—Bertsolari ona, gaijartzaile ona al da, nahitaez?
—Bertsolari onak aukera handia du gaijartzaile ona izateko, baina gaijartzaile ona izateko ez da beharrezkoa bertsolari ona izatea. Gaijartzailearen lana gogorra eta astuna da. Nire iritziz, gai onak

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Aitzol de Kastro Bakeriza.
- ▶ Belgikan (Lovaina) jaioa, 1971ko maiatzaren 3an.
- ▶ Egun Leioan bizi da.
- ▶ Ekonomi eta Enpresa Zientzietan lizentziatua.
- ▶ Igeriketa monitorea da Leioako Sakoneta kiroldegian.

HIRU LERROAN

Hiru bertso, hiru afizio

Bertsojartzailea: Aitzol de Kastro / Doinua: Munduan libre bizi izateko

1

Garai batean igeriketak ni ninduen irentsia, sakrifizioz beterik, baina kirol lez gutxietsia. Hainbeste marka, zenbait errekor, pila bat esperientzia, baina orain dut utzia, eta zein gauza bitxia! Marken gainera lagunarte hark du gaur egun garrantzia, gainera oraindik noizik behinean janzten dut bainujantzia.

2

Afiziotzat gero bertsoa hartu nuen betirako, kantua eta euskera bera oso maite nuelako. Jende ugari ezagutzen da, egiten da barre asko; egokia juergarako ta noski kritikarako. Edozeinentzat dugu tokia, beraz, ez utzi biharko; bertsoa kirol aproposa da edozein adinerako.

3

Ta hirugarren afizioa zaila da aukeratzea. Gustukoa dut munduan zehar noizbehinka bidaia, mendi tontorren artean baita saltoz salto ibiltzea, nire etxera heltzea ta neska musukatzea, lagun koadrilan giro onean goxo-goxo afaltzea... Afiziorik handiena dut hitz batean, bizitzea!

“Saioa alde guztietatik orekatzea eta erritmo egokia markatzea da gaijartzaile onaren sekretua”

ipintzeaz gain, saioa alde guztietatik orekatzea eta erritmo egokia markatzea da gaijartzaile onaren sekretua.

—Zenbateraino da Aitzol autokritikoa?
—Bertsolaria autokritikoa da berez. Nahiz eta saioa bukatu ostean "bukatu da eta kitto" pentsatu, gero buruari eragiten geratzen zara, "hau honela eta hori bestela esan behar nuen" pentsatuz. Askotan buruz bota duzun bertso bakoitza aztertzen duzu eta askotan bertso berregiten duzu, eta beti asmatzen duzu saioan botatakoa baino bertso hobea. Hori autokritikoa izatea da.

—Ardura handia al da jaialdi mundia-

leko gidari izatea?
—Erantzukizun handia. Talde zabal batek antolatzen du bertso saioa mundiala, baina gero oholtzan ni naiz horiek guztiek egindako lanaren aurpegia, eta horrek zama astuna suposatzen du. Hala ere, gustura daramadan zama dela aitortu behar dut, jendea eta bertsolariak pozik irteten badira erraz konpentsatzen den zama.

Neuk ere aitortu behar dut gustura egin niola Aitzoli elkarrizketa, giro jatorrean gauza interesgarri asko esaten dituen horietakoa baitugu. Aurrerantzean ere zer esana emango du. Ez galdu bistatik! m

BERTSOAGENDA

- Aixerrotako Paellada**
Uztailak 25. 13:00ean, Kaleja BERRIaren alde. Bertsosaioa ALBEko lagunekin.
- Uztailak 26.** 19:30etan, Berangoko Santa Ana auzoan. Fredi Paia eta beste hiru bertsolari. Gaijartzaile: Nahikari Ayo.
- Uztailak 27.** 20:30etan, Gorlizko Iberre-barri plazan. Andoni Egaña, Igor Elortza, Fredi Paia eta Miren Artetxe. Gaijartzaile: Miren Loizaga.

Umezaroa **gogoratuz**

“Gero eta haur gutxiago jaiotzen direla esaten dute, baina nik umez beteta ikusten ditut herriko plazak”. Horrelakoak esaten dituzte batzuek eta baliteke zuzen egotea, edozein lekutan ikus daitezke-eta, handik eta hemendik dabiltzan haurrak. Dagoeneko, irakurle, jakingo duzu zein den gaur dakargun gaia: umeak izango dira Akabuko Punte honen protagonistak.

Testua: **Urtzi Iglesias** / Erretratua: **Jokin Aspuru**

Gogoratzen duzue zuen umezaroa? Lantzean behin, neuk ere gogoratzen ditut denpora horiek, eta lehengo eta oraingo haurren artean alde handia dagoela ikusten dut. Lehen, **kaniketan**, **soka yantzan**, **arretxikon**, **muñekekaz** edota **tronpegaz** ibiltzen ginen olgetan. Nork ez ditu gogoratzen **inke**, **tabe** eta txorro **morro piko tallo ke** modukoak ere? **Goi-tibera** eleganteak ere egiten genituen txikitan (nahiz eta ondoren hartzen genituen **golpek** ere sano eleganteak izan askotan).

Egun, ez da horrelakorik ikusten; oraingo haurrek, **telebista** aurrean edo **ordenadoregaz** ibiltzen dira eta kalean ere bestelako jokuetan ibiltzen dira.

Lehendik hona aldatu ez dena, ume-ekaz erabiltzen diren berbak dira. Uribe Kostan baditugu horrelako batzuk, eta seguru batzuek gogoratzen garela. Bazkaltzeko, **txitxi** (okela) izaten genuen askotan, eta **mama** (ura) edateko; merien-derako, berriz, goxo-goxo ziren **papa** (ogia) eta **koko** (txokolatea).

Umeak, **pata-patan** (oinez ibili), handik eta hemendik ibiltzen dira egun osoan, eta askotan leher eginda amait-



zen dute. Orduan, **apatxe egin** (jesartze-ko esaten da) baino ez dute gura; edota aitak “**aupa** bai lepora!” noiz esan zain egoten dira. Kasu hauetan **lolo egiteko** gura izatea normala izaten da.

Azkenik, **fuk** (sua) umeak erakartzen ditu, baia kontu handia eduki behar da txi (erre) ez egiteko.

Besterik gabe, **patxu** (musu) bet guztioi! m

«Lehen, kaniketan, soka yantzan, arretxikon, muñekekaz edota tronpegaz ibiltzen ginen olgetan»

www.argia.com

Gurberbaker25

GURE AZENTU(VII)

Testua: **Xabi Bilbao**

Azentun ganerako seigarren kapitulun hasi egin gintzezen ikusten zelan erderatik datozen berba askok azentu darauden gure eskualdeko berbakeran. Horretan segiduko dogu hemen bere. Burun aukizue gure euskeran lau motatan banatu leitezela berba azentudunek (ikus Berbakere 20), eta lau horretatik mota bat direzela latinetik eta erderatik (gaztelaniatik) datozenak. Ikusite dekuz, azkeneko kapitulun, erderatik datozen berban kontuk (ánimu, eleméntu, bánku/banku, toréru/toreru, gobernu, kamiño,...). Gaur latiñetik datozenak ikusiko doguz.

Badakigu danok gaurko euskerak berba nahie dekozela ingirun dekozen erderatatik koxite (gaztelaniatik, frantsesatik, inglesatik,...). Baia berbak koixte hori ez da kontu barri euskerantzako: gaur gure berbakeran bai eta Euskal Herri guztin erabiltzen direzen berba asko latiñetik koxi euzen euskerak atxiñe, esate baterako: ántzar, gatzélu, módu, zapátu, sékule. Erraz ezetuten dake horrerri barbari latiñetik datozela, gaurko erderara bere heldu direzelako, apur bet aldatute bada bere: ánsar (hegazti), castíllu, módo, sábado... Baia beste asko eta asko dagoz latiñetik datozela ezetuten gatxago direzenak, esate baterako: akúllu, dénpora, doméka, espíllu, géla, íngiru, kinpúlla, kollára, lándara, léku, orío, titéra,...

Horrek adibide guztik azentudunek direz, kanpotik hartu doguzen berba asko direzen lez, baia latiñetik datozen beste berba asko azentu barik esaten direz gure berbakeran: abendu, akabu, angeru, bake, berba, borondate, diru, errege, erregiñe, errota, firu, gauza, gorputze, iko, katu, lege, lora, mesede,... Hau da, erderatik koxi doguzen berbak lez, latiñeko batzuk yatorriko azentuez eta beste batzuk azentu kendute esaten doguz. Baia, latiñeko berban arten, kasik ez dau barbarik nahi azentuez nahi azentu barik esaten danik (ostera, akorda zateze, erderatik koxi doguzen berba batzuk bai: bánku / banku, toréru / toreru, eta abar). Hau da, atxiñe latiñetik koxite dekuzen berbak, edo azentu gordeten daude, edo galdute dauke, baia bietara erabiltzen dan barbarik gatx da topaten. Honek biek entzun dodaz nik: madáriketu / madariketü, bedéinketu / bedeinketu, baia beste adibide argirik ez.

Nahiko da gaurkoz. Hurrengo arten! m



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu



94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Armezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefo-
nica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491
58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Marmitakoa

Plater hau prestatzea oso erraza da eta emaitza primerakoa, gauza guztiak bezala, patxadaz eta maitasunez egiten bada. Goazen ba! Lehenengo fumet bat, hau da, arrain salda bat prestatuko dugu etxean ditugun barazkiekin (azenaorioria, berakatza, piperra... norberak daukanarekin), hegaluze zatitxu batekin eta honen arantzekin, gatza ere bota behar zaio, jakina. Beste lapiko edo marmita batean kipula txikitua (asko), piper berdea eta txorizo piperra su apalean ipini kipula bigundu arte. Ondoren, patata kraskatu zatiak bota (nik pimentoï apur botatzen diot), eta aurretik prestatu dugun fumet hori irakiten dagoela ere bai. Hau guztia su ertainean mantendu patata egin arte. Gatz puntuarirekin adi. Nahi badugu, tomate egosi zati batzuk (azala eta hazi barik) bota ditzakegu, horrela egiten badugu, beste bost minutu eduki behar dugu lapikoa sutan. Ondoren lapikoa sutatik kendu eta hegaluze zatiak (patata zatien tamainakoak) sartu lapikoan hauek egosi arte (hiru minutu). Segituan jan behar da, txakolin apur batekin lagunduta bada, hobeto. m

osagaiak

- hegaluzea • patata • kipula • piper berdea • txorizo piperra •
- gatza • oliba olio • pimentoia •



itsaso arana / jolastoki-koa

Patxarana

E dari nafar peto hau Denominación Especifica de Pacherán Navarro delakoak babesten du 1988tik. Jatorri-izendapen hau 16 marka saltzen dituzten sei enpresak osatzen dute. Hala ere, antzinako testuen arabera, patxaranaren jatorria frantsesa ei da, izan ere Europa osoan aurki daitezke likore goxo hau egiteko erabiltzen diren basaran edo patxaranak. Udaren bukaeran ontzen dira kolore beltz-urdineko basafritu hauek. Jatorria basalandare batean dute (Prumus espinosa L.), baina patxaranerako egoki diren lau mota bereiztu dira, eta gaur egun, esperimentazio lanen ondoren, badira mota hauetako 110 hektarea basaran Nafarroan, gehienak Erriberan. Sendagai moduan ere erabili izan da mama gorri hau, aspalditik egozten zaizkion onura digestiboak direla eta. Osaerari dagokionez, mende hasieran basaranak eta anisa botilan elkartuz egiten zen, beste barik. Gero, gozotasun apur bat emateko, melokotoi zatiak gehitzen zitzaizkion. Hala ere, 1956. urtera arte ez zen modu industrialean ekoizten hasi. Gaur egun, patxarana egiteko basaranak alkohol agrikolean beratzen dira, eta aurretik edo ondoren, anisaren olio esentziak gehitzen zaizkio. Hilabete bat eta zortzi artean uzten da beratzen. Prozesu honi esker hartzen du patxaranak kolore gorri berezi hori. Garrantzitsua da azpimarratzea, beratzeprosuan astindu egin behar dela aldika edarigaia, basaranak hondora joan ez daitezen, suspentsioan egon behar dute eta zapore transmisio egokia lortzeko. Nafarroako araudiak 125-250 gramo basaran ezartzen du patxaran litroko. Amaitzeko, jakin ezazue nafar zukuaren alkohol graduazioa 25 eta 30 artekoa izaten dela. m

Pinubarri jatetxea

baserri artean “galduta”




Jatetxean emakumeak nagusi dira (ezkerrean, Idoia Olabarrieta)

Erandioko Olabarrieta familiak 40 urte daroaz Pinubarri jatetxean, Martiartun. Idoia Olabarrieta sukaldari eta gaur egungo ugazaben alabak dioenez, “jatetxe hau inguruko zaharrena da, errepiderik ez zegoenean ere hemen zegoen”. Orain errepidea dago, baina jatetxea ez da aurkitzen erraza. Hoberena telefonoz deitzea da, edo dakien norbaitegaz joatea. Pinubarrin etxeko janaria da nagusi. Indabak, txuleta, antxumea... Etxeko eran prestatuta eta etxeko eran emanda. Jatekoak (oparoak, bide batez esateko)

plater handietan ateratzen dituzte mahaira gehienetan, norberak gura duen beste har dezan. Merkea da, gainera: asteguneko menuak 7 euro balio du; asteburukoak, 11. Azkenik, gure ustez onerako den ezaugarri berezia dauka Pinubarrrik: jantokian, sakeleko telefonoek ez dute jotzen, seinalea ez delako bertaraino ailegatzten. m

PINUBARRI JATETXEA
Askorbesko Peñes bidea, 11. Erandio
Telefonoa: 94 467 61 04



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA



Taberna Bern

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



Asador



- ¥ Egunero zabalik
- ¥ Eguneroko menuak
- ¥ Enpresa menuak
- ¥ Menuak norberaren gustura
- ¥ Egunero karta berezia
- ¥ Gazez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- ¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

zure **publizitatea** hemen

UK **94 491 13 37**



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO


OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA
T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Espezialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA t  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Har ezazu hamabostaldi lasaitasunaz. Lanean urduri samar zabilza eta datozen egunotan estresa gainetik kentzea komeni zaizu. Zure gorputza ondo zaintzen ahalegindu. Emaiozu behingoz gustu hori!	OTSOA t  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Sasoi honetan zorioneko zaude, Otsoa! Aspalditik pentsatuta duzun plan hori ondo irtengo zaizu, eta beraz, pozik egoteko arrazoirik ez zaizu faltako hamabostaldi honetan. Zuk bai zorrea...	ADARRA t  (Otsailak 19 martxoak 20) Uxatu itzazu behingoz buruan bueltaka dituzun mamu horiek! Ez zara konturatzen zuk bakarrik ikusten dituzula? Zure kontua da eta zeuk konpondu beharreko arazoa, beraz. Zabaldu begiak!
AITZURRA t  (Martxoak 21 apirilak 19) Ez zaitetz hain gogorra izan etxekoekin. Umore petral hori egunen batean zure kontra ipiniko zaizu, uste duzun baino lehenago, eta orduan beranduegi izango da. Noizean behin ahoa ixten ere jakin behar da. Kontuz ibili.	HOSTOA t  (Apirilak 20 maiatzak 19) Nortasun bikoitza duzula esan daiteke. Primeran dakizu zure aurpegietako bat edo bestea erakusten komeni zaizunean. Hori ez da sana. Besteak ere konturatu dira dagoeneko, eta horrek mesfidantza besterik ez die eragingo.	EGUZKIA t  (Maiatzak 20 ekainak 18) Kezkatzen zaituen arazo hori laster konponduko da. Hori diote izarrek. Izan pazientzia, uste baino lehenago argituko zaizu bidea eta beste modu batean ikusiko dituzu gauzak. Zain egoteak izango du bere ordaina, lasai.
GARIA t  (Ekainak 19 uztailak 18) Eskua poltsikoan sartu, dirurik aurkitu ez eta gainera harridura aurpegia ipintzen duzula? Zelan aurkituko duzu txanponen bat, soldata jaso ahala dena xahutzen baduzu! Hain garestiak diren praka horiek itxaron dezakete.	LASTOA t  (Uztailak 19 abuztuak 17) Ez dakit zer daukazu azken aldian, baina burua txoriz bete zaizu. Amodioa ete? Maitemindu egin ete zara? Ziur asko ez duzu hala dela onartuko, <i>Lastoa</i>-koak horrelakoak zaretelako, baina guk baietz esango genuke.	IRATZEA t  (Abuztuak 18 irailak 16) Berriz ere gerritik gaizki zabilza. Askotan entzun duzu masajistarengana joan beharko zenukeela, baina ez duzu kasurik egiten. Zeuk ikusi. Erxean egiten dituzun ariketa arraro horiek ziur zaude on egingo dizutela?
META t  (Irailak 17 urriak 16) Santu aurpegi horrekin inguruko denak engainatuta dituzu. Baina ez pentsa, egunen batean jausiko zaizu maskara hori, eta orduan helduko zaizu gauza bat edo bi argitzeko ordua. Prest egon zaitetz momentu horretarako.	HAZIA t  (Urriak 17 azaroak 15) Nekatuta sentitzen zara, dena ilun ikusten duzu eta mundua zure aurka dagoela pentsatzen duzu. Lagunekin berba egitea ondo etorriko zaizu. Beraz, ireki zaitetz gehiago eta utzi sentimen- duek euren bidea egin dezaten.	NEGUA t  (Azaroak 16 abenduak 20) Zure bizitza nahaste-borraste izugarria da. Gura duzun guztia egiten ohituta zaude eta egin dezakezun kalteez ez zara ohartzen. Ikusiko duzu zelan horrek ordaina ekarriko dizun. Berraztertu ezazu zure jarrera, berandu baino lehen.



mungia

oKINDegia

Algortan badaukagu
artisauen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuin

1. Duela asko gertatutakoa. 2. Neronena. Gaixo. 3. Titanioaren sinbolo kimikoa. Trukean aldatu. 4. Itsasontzi. Röntgen. Oinarrizko edari. 5. Pl. Estimazio handiko fruitua. Kontsonantea. 6. Pozik. Nafarroako mendialdea. 7. Langile berezia. 8. Uranioaren sinbolo kimikoa. 48 ordu barru. Zintzo. 9. Behiala. Bokal errepikatua. 10. Bere kabuz, bere Errementari.

Goitik behera

1. Eratuak. 2. Zeinu. Sodioaren sinbolo kimikoa. 3. Plutonioaren sinbolo kimikoa. Baldar, moldakaitz. 4. Artzaingoa. 5. Nafarroako herria, Lizarrako merinaldean. Iparraldean, izu. 6. Biarnoko hiriburua, biarnesez. Noski. 7. Bat. Itsas arraina. Ez eme. 8. Suari dariona. Emakume izena. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. 9. Bizkaieraz, baratze. Noka, dut. 10. Izaera. Abezedearen lehen eta azkeneko letrak.

Soluzioak

Z	T	O	R	A	V	S	K
V	A	V	N	I	Z	N	V
N	O	I	Z	T	E	U	
A	I	R	A	K	I	N	K
I	D	O	B	A	I	V	L
R	K	A	J	N	V	R	L
R	U	R	I	Z	T	N	O
U	T	A	K	U	R	T	I
I	E	R	A	E	U	R	E
A	K	O	I	D	A	L	S



EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n egingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN



BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behe. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Alemaniako Mönchengladbach hirian jaio zen 1945ean.
- Guztira lau urte eman ditu gurean beharrean.
- Bere sorterrira itzuliko da lanera laster.

> Aurrekoaren erantzuna: Loli Astoreka

> Irabazlea: *** Aintzane Mendiola (Leioa)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean
bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita



Bilboko Itzuliaren bosgarren etapa, 1949

Garai batean, Tourra, Giroa eta Vuelta ez ezik, Bilboko Itzulia ere bazegoen: argazki hau 1949an egin zenari dagokio, bosgarren etapari hain zuzen, eta bertan ikus ditzakezue Ciclos Elgezabal taldeko txirrindulariak, den-denak Uribe Kostakoak, lasterketari ekiteko prest. Afizionatu mailakoak ziren, eta taldea Itzuli hau egiteko bakarrik sortu zen. Algortako Jesús Pérezek utzi digu erretratua (ezkerretik hasita laugarrena da bera); ia kasualitatez hasi ei zen txirrindulaz ibiltzen Jesús, eta behin, lasterketa baten lehen berrogeita hamarren artean sartu zenez (berrogeita hamargarrena, hain zuzen), Bilboko Itzulian ibiltzeko eskubidea irabazi zuen. Esan digunez, etxetik lasterketa hasteko lekura arte ere txirrindulaz joan behar izaten zuten.

Erretratua Deustuko Zubiaren inguruan eginda dago, Arte Ederretako museoa zegoen (eta dagoen) aldean. Argazkikoek 18 urte zeuzkaten gutxi gorabehera garai hartan, eta esateko erregutu digutenez, Angel Muniozguren taldeko kidea ez da bertan ageri, ezagun ez ditugun arrazoiengatik. m

Ezkerretik eskumara: Leandro Intxaurtieta, Rafael Pérez “El Negro”, Luis Uriarte (GB), Jesús Pérez, Jesús Bengoetxea, Manuel Azkorra

* Oharra: aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik bazenu, jarri zaitez mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

HARKAITZ CANO > idazlea

“Pertsona obsesiboegia naiz gauza batzuetan”



HARKAITZ CANO— Lasarte-Orian jaio zen orain dela hogeita zortzi urte. Donostian burutu zituen Zuzenbide ikasketak eta bertan bizi da gaur egun. Idazle honek prentsarako, irratarako, telebistarako eta zinerako lan egin du. Bere sormen lanetan estilo literario bat baino gehiago jorratu du, besteak beste, ipuinak, poesia eta narrazioa. *Norbait dabil sute-eskaileran* (2001) du azken lana. Une honetan ez dauka beste libururik ateratzeko asmoa, baina eginda dauzka ipuin eta narrazio batzuen zirriborroak. Gaur egun, zutabe bat idazten du egunero *Berria* egunkarian.

Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat.
Pertsona disziplinatua naiz.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?
Pertsona obsesiboegia naiz gauza batzuetan.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...
Lasarteko uholdeez nahiko oroitzen naiz. Irudi nahiko berezia zen, ura zubiaren gainetik etortzen zen, eta honekin hildako behiak, upelak... Hori guztia grabatu zitzaidan memorian.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?
Pena eman diola nire liburu bat bukatzeak, edota liburua itsatsi zaiola eskuetara.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?
Nire liburu bat irakurri ostean halako interjekzio bat esatea, ia onomatopeiko bat: bah! Niretzako hori da okerrrena.

Zein da zuk idatzitako zure libururik gogokoena?
Zaila da aukeratzen baina beharbada nire lehenengo nobela aukeratuko nuke: *Beluna Jazz*. Liburu hau esperantza eta ilusio handiz idatzi nuelako, eta azkenean ez zuen nik nahi nuen edo espero nuen erantzunik, oihartzunik jaso. Badakit ez dela nire libururik onena baina “kariño” berezia diot.

Abestirik gustukoena? Ruper Ordorikaren *Berandu dabil*tza.

Eta film bat? *After Life*, Koreeda Hirokazu zuzendariarena. Bertan istorio bitxia kontatzen dute. Zerura joan aurretik pertsona batzuk bainuetxe antzeko batean biltzen dira, eta bertan esaten diete haien oroitzapenen artean bat aukeratzeko. Oroitzapen hori eternidadera eramango duten gauza bakarra izango da, orduan jendeak ondo pentsatu behar du gainontzeko guztia ezabatuko dietelako.

Zein lelorekin egiten duzu bat? Geldirik ez egon.

Zerk ematen dizu beldurra? Nere gauzetarako denborarik ez edukitzeak. Beldurra baino angustia da.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?
Eguna pasa dela eta zerbait egin dudala pentsatzeak.
Egun bakoitza diferente egiten duen zerbait edukitzeak. m

3+1 EUSKARA MERKATARITZARA

getxo euskalduntzeko hitzarmena

